

XEDAPEN OROKORRAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5176

ERABAKIA, 2023ko urriaren 31koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren administrazio kontseiluarena, zeinaren bidez onartzen baita Osakidetza-Euskal Osasun testu bategina, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatu eta kudeatzeko, 2023ko irailaren 28ko mahai sektorialean onartutako aldaketekin.

2021era arte, aldi baterako kontratazioa 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bidez arautu da. SATSE, SME eta UGT sindikatuek sinatutako 2017ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez, akordio berri bat negoziatzeko beharra ezarri zen, zerrenda bakarraren sistema ezartzeko.

Era berean, denborak ekarri duen esperientziagatik, teknologia berrien ezarpenagatik eta teknologia horiek berritzeko beharagatik, berrikusi egin behar dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak egiteko eta kudeatzeko irizpideak, aldi baterako kontratazioari eraginkortasun, efizientzia, arintasun eta gardentasun handiagoa emateko. Horregatik negoziatu da Osasuneko Mahai Sektorialean, hainbat bileraren bidez, eta akordioa lortu da 2021eko ekainaren 25eko Mahai Sektorialean, Administrazioaren eta SATSE eta SME sindikatuen ordezkarien artean. Akordioa sinatu zuten 2021eko uztailaren 21ean.

2021eko uztailaren 21eko Erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile ez-finkoak kontratatze zerrenden sistema arautzen duten irizpideak definitzen ditu, eta bere asmoa da Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesu bakoitzaren amaierari lotutako sistema bat ezartzea, zerrendak egiteko eta izendapenak kudeatzeko irizpideak jasoz; bada, zerrendak eta izendapenak hautaketa-prozesuko berdintasun, merezimendu, gaitasun, eraginkortasun eta arintasun-printzipioetan oinarrituko dira, bai eta objektibotasun eta gardentasun printzipioetan ere, erakunde sindikalei informazioa ematea barne.

2021eko uztailaren 21eko Erabakian jasotako testuaren bidez, aldi baterako zerbitzu-emateen egonkortasuna sustatu nahi da, harremanaren behin-behinekotasunaren barruan; izendapenen ukoen eta bazterketen justifikazioa zehaztu nahi da, justifikatu gabeko ukoen kasuan; eta aldi baterako langileen diziplina-araubidearen berezitasunak aurreikusi nahi dira.

Berritasun gisa, azpimarratu behar da zerrendak beti irekita egongo direla, eta sistema arin bat ezarriko dela izangai berriak lanean hasi ahal izateko, baldin eta aurreikusten bada lanerako prest dauden izangaiak agortuko direla edo hainbat arrazoirengatik komenigarritzat jotzen bada, betiere publikitatea eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeko asmoz.

Azpimarratu behar da izangaiak hautatzeko aukerak zabaldu egin direla. Bada, Erabaki honetan, izendapen luzeen zerrendan, zer zerbitzu-erakundetean (aurrerantzean ZE) eman nahi den zerbitzua aukeratu ahal izango da, indargabetzen den Erabakian ez bezala, bertan osasun-barrutiaren hautaketara mugatzen baitzen, eta izendapen laburren zerrendan, berriz, ospitale-esparruaren eta lehen mailako arretaren artean aukeratu ahal izango da, Erabakia bi eremuak ZE-etan uztartuta izatera egokituz. Era berean, bost lehentasun ere aukeratu ahal izango dituzte ospitale-esparruaren eta Lehen Mailako Arretako Unitateen (LMAU) artean.

2021eko uztailaren 21eko Erabakian, egungo testuingurua kontuan hartuta, zerrendak egiteko eta kudeatzeko prozesuaren digitalizazioa sustatzen da. Lanpostu hutsen zerrendetako izangaien izendapenak kudeatzeko, Osakidetzak beren-beregi gaitutako baliabide telematikoak erabiliko dira modu lehenetsian, sistema eraginkorragoa izan dadin.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 12/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez Esparru Estatutuaren 9. artikulua aldatu zenez, 2021eko uztailaren 21eko Erabakia arau-aldaketa horren ondoren zeuden izendapen-motetara egokitu behar izan da.

Negoiazio-prozedura egin da, eta, azkenean, SATSErekin eta SMEREkin akordio batera iritsi zen 2023ko irailaren 28ko Mahai Sektorialean, eta onartu dira 2021eko Buztailaren 21eko Erabakiaren aldaketak.

Horrenbestez, egoki eztabaidatu ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, Osasun Zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 80.1 eta 2. artikuluetan, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 26. artikuluan eta Enplegatutako Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 31. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera,

ERABAKIA:

Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egiteko eta kudeatzeko 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren testu bategina, 2023ko irailaren 28ko Mahai Sektorialean onartutako aldaketekin (erantsita doaz).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentea,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

I.TITULUA

ZATI OROKORRA

1. artikulua.– Erabakiaren xedea.

Erabaki honen xedea da, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 33. artikuluan ezarritakoa betez, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan kontratazio-zerrendak egiteko eta aldi baterako estatutupeko langileak hautatzeko prozesua erregulatzeko arauak ezartzea, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioei jarraikiz, arintasuna, objektibotasuna, gardentasuna eta efikazia bermatuz, eta erakundeen parte-hartzearekin.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Erabaki hau Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan aldi baterako lanpostuak betetzeko langileen hautaketari eta kontratazioaren kudeaketari aplikatuko zaio, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9. artikuluan jasotako edozein lotura motatan.

2.– Era berean, araudi hau aplikatuko da lan-arloko eta gizarte-segurantzako araudi aplikagarrian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzeko, langileak lan-harreman honi lotuta daudenean:

a) Errelebo-kontratua, erretiro partziala hartu duten langileak ordezkatzekoa.

b) Lan-legepeko bitarteko kontratua, 64 urterekin erretiroa hartu duen langile baten lanpostua betetzekoa.

3. artikulua.– Printzipio eta Irizpide Orokorrak.

Osakidetzan aldi baterako langileak hautatzeko, printzipio eta irizpide orokor hauek izango dira arau:

1.– Berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publizitatea aldi baterako langile izatera iristeko orduan.

2.– Efikazia eta bizkortasuna hautaketa-prozesuan.

3.– Objektibotasuna eta gardentasuna.

4.– Aldi baterako kontratazioko irizpide korporatiboak aplikatzea Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietan.

5.– Giza baliabideen beharrak planifikatzea, eta koordinazioa, lankidetzeta eta osagarritasuna bultzatzea zerbitzu-erakundeek aldi baterako langileen estaldura-beharrei erantzuteko egin ditza-keten jarduera guztietan.

6.– Aldi baterako kontratazioa kudeatzean, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen buruz ezarritako arauak errespetatzea.

7.– Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak sortu eta teknikoki kudeatutako euskarri informatiko komuna erabiltzea zerbitzu-erakunde guztietan.

II. TITULUA

ALDI BATERAKO IZENDAPENAK SORTU ETA KUDEATZEKO ELEMENTU KOMUNAK

I KAPITULUA

KUDEAKETA-ORGANOAK

4. artikulua.– Aldi baterako kontratazioko zerbitzu korporatiboa.

Osakidetzako Aldi Baterako Kontratazioko Zerbitzu Korporatiboa Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordezaren barruan dago, eta zuzendariordeza hori, Ente Publikoko Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende dago. Hauek dira, besteak beste, aipatu zerbitzuaren eginkizunak:

a) Osakidetzako aldi baterako langileak hautatzeko sistema antolatzea orokorrean eta hura etengabe eguneratzea, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak proposatuz, gero Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatzeko, egokia bada.

b) Jarduketa- eta interpretazio-irizpideak bateratzea, kudeaketa-unitateek aplika ditzaten zerbitzu-erakundeetako langileen aldi baterako kontratazioan.

c) Ezaugarri bereziak dituzten lanpostuak betetzeko kontratazio-eskaintzen irizpide orokorrak ezartzea.

5. artikulua.– Zerbitzu-erakundeetako Aldi Baterako Kontratazioko Zerbitzua.

Zerbitzu-erakunde bakoitzean, unitate administratibo jakin bati esleituko zaio erakundeko langileen aldi baterako kontratazioaren kudeaketa, eta unitate horrek eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

a) Zerbitzu-erakundeko aldi baterako kontratazioa kudeatzea, Erabaki honetan horri dagokioenez esleitutako erantzukizunak banatzeari buruzko irizpideen arabera.

b) Aldi baterako estatutupeko langileen izendapenei buruzko hileko txosten bat egitea, formatu editagarrian. Txosten horretan, hauek jasoko dira: izen-abizenak; kategoria / lanpostu funtzionala; antolaketa-unitatea, izendapen mota, eta, hala badagokio, ordezkapenaren arrazoia; izendapenaren hasiera- eta amaiera-data, zehaztuta dagoenean; derrigortasun-data, lanpostu-kodea eta lanaldiaren ehunekoa. Txosten hori dagozkien sindikatuei bidaliko zaie.

6. artikulua.– Erabakiaren Kontrolerako eta Jarraipenerako Batzorde Korporatiboa.

1.– Paritarioa izango da, eta honako hauek osatuko dute: Osakidetzak izendatutako pertsonak eta Osasuneko Mahai Sektorialean ordezkari izanik Erabaki hau sinatu duen sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak. Batzordeak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian izango du egoitza, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren titularra izango da batzordeburua.

2.– Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:

a) Erabaki honetan jasotakoa behar bezala aplikatzen dela zaintzea, kontrolatzea eta jarraipena egitea.

b) Erabakiaren edukia maila korporatiboan interpretatzea, haren ondoriozko gorabeherak edo kontraesanak saihesteko edo konpontzeko, irizpide koordinatuak ezarriz.

c) Erabakian egin beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen aldaketak proposatzea Giza Baliabideen Zuzendaritzari, Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatzeko.

3.– Erabakiaren Jarraipenerako Batzorde Korporatiboak, eratu eta berehala, bere funtzionamendu-erregelamendua izan beharko du.

II. KAPITULUA

ZERRENDAK SORTZEA

7. artikulua.– Aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzea.

1.– Honako hauek osatuko dituzte Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendak: azken Enplegu Publikorako Eskaintzako hautaketa-prozesuan parte hartu, estatutupeko langile finko izatera iritsi ez eta 8.1 artikuluan ezarritako moduan eta epean zerrendotan sartzeko eskabidea aurkeztu duten pertsonak. Pertsona horiei jakinarazpen pertsonala bidaliko zaie aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaera aurkezteko moduari eta epeari buruz.

2.– Halaber, aurreko apartatuan sartzan ez diren eta 8.1 artikuluan ezarritako moduan eta epean zerrendotan sartzeko eskabidea aurkeztu duten pertsonen ere osatuko dituzte aldi baterako kontratazioko zerrendak.

3.– Aurreko bi paragrafoetan adierazitako pertsonen, kontratazio-zerrenda horietan benetan sartzeko, Osakidetzako dagozkion kategorietan / lanpostu funtzionaletan aritzeko eskakizunak bete beharko dituzte, Erabaki honen 9. artikuluari jarraikiz.

4.– Aldi baterako kontratazioko zerrendak, eratu ondoren, irekita egongo dira beti, eta edozein unetan erregistratu ahal izango dira izena emateko eskabideak. Izena emateko eskabideak aurkezen-dataren arabera ordenatuko dira.

5.– Hala ere, jadanik eratuta dauden indarreko zerrendetan izen-emate berriak sartzeko, data batera arte (etendura-data) aurkeztutako eskaerak hartuko dira kontuan, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpen bidez ezarriko da kategorია / lanpostu funtzional bakoitzerako.

6.– Izen-emate berriak kategoría / lanpostu funtzional bakoitzerako dagoeneko eratuta dauden zerrendetan sartzeko erabiliko den etendura-data izen-emate berriak egiteko behar besteko aurrerapenaz iragarriko da, Osakidetzako aldi baterako kontratazioko web-orrian argitaratuz, eta Erabakiaren kontrol eta jarraipenerako batzorde korporatiboari horren berri emango zaio.

Nolanahi ere, urtean bitan egingo da, eguneratzeekin bat etorriz, fakultatibo medikoen lanbide-taldeari dagozkion kategorietan / lanpostu funtzionaletan, bai eta Psikologia Klinikoko FE Teknikoen, Ospitale Farmaziako FE Teknikoen, Erizainen, Erizaintzako Espezialitateen eta Fisio-terapeuten kasuan ere.

7.– Nolanahi ere, kontratazio-zerrenda horietan benetan sartzeko, izangaiek Osakidetzako kategorietan / lanpostu funtzionaletan aritzeko eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

8.– Kategoría / lanpostu funtzional horietan dagoeneko eratuta dauden zerrendetan izen-emate berriak sartzea beharrezkotzat joko da ohikoa bihurtzen denean zerrenden azken bostenean dauden izangaiei deitzea ZE-etan, ahal den neurrian ekiditeko zerrendak agortzea.

9.– Indarrean dauden zerrendetan ez badago lanerako prest dagoen izangairik, salbuespen gisa, premia larri eta atzeraezinak betetzeko, eskaera aurkeztu den egunaren arabera ordenatu-

tako eskaeretara jo ahalko da, harik eta eskabide berriak indarreko zerrendan efektiboki sartu arte. Egun berean aurkeztutako eskabideen kasuan, adinez nagusienaren irizpidea aplikatuko da. Hori guztia, seigarren xedapen gehigarrian araututako egoera salbuetsita, hau da, prestakuntza espezializatua amaitzen duten osasun-langileak kontratazio-zerrendetan sartzeari dagokiona.

10.– Zerrendetan jasota ez dauden kategoria eta lanpostu funtzionaletako izendapenak egin behar badira, aldeztatik deialdia eginda, dagokion kontratazio-zerrenda eratu ahalko da, Erabaki honetan ezarritako irizpideen arabera.

11.– Hasieran zerrendak osatzen dituzten pertsonen nahiz ondoren sartzen direnek alegatu ahal izango dute % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa daukatela aitortuta.

12.– Egoera hori egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, Administrazio organo eskudunak emana (Foru Aldundietako Sail eskudunak, IMSERSOk edo indarrean dagoen legeriaren arabera baliokideak). Desgaitasun intelektualaren izaera aitortuta izanez gero, izaera hori egiaztatzeko, desgaitasun intelektuala aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, Administrazio organo eskudunak emana (Foru Aldundietako Sail eskudunak, IMSERSOk edo indarrean dagoen legeriaren arabera baliokideak).

8. artikulua.– Aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaria.

1.– 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, azken Enplegu Publikorako Eskaintzako hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta estatutupeko langile finko izatera iritsi ez diren izangaiek aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaera aurkeztu ahalko dute, zerrendak eratzeari buruzko Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpenean ezarritako epean eta moduan.

7.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, azken Enplegu Publikorako Eskaintzako hautaketa-prozesuan parte hartu ez duten izangaiek aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko eskabidea aurkeztu ahal izango dute, zerrendak eratzeari buruzko Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpenean ezarritako epean eta moduan.

Eraketako Ebazpenean xedatutako epearen barruan eskabidea aurkezten dutenak sartuko dira zerrendetan, baldin eta Osakidetza dagozkion kategorietan / lanpostu funtzionaletan aritzeko ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

2.– Erabaki honen 7.4 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik, zerrendak eratu ondoren, Osakidetza dagozkion kategorietan / lanpostu funtzionaletan aritzeko eskakizunak betetzen dituzten pertsonen edozein unetan eskatu ahal izango dute eratu dauden aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena ematea. Hala ere, indarrean dauden zerrenda eratu eta izen-emate berriak sartzeko, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpen bidez ezarritako etendura-datara arte aurkeztutako eskaerak hartuko dira kontuan, 7.6 artikuluan azken paragrafoan aurreikusitako inkorporazioak izan ezik, horiek ekainaren 30era eta abenduaren 31ra arte aurkeztutako eskaerekin egingo baitira.

3.– Nolanahi ere, kontratazio-zerrendetan benetan sartzeko, interesdunek 9. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, eta, besteak beste, dagokion titulua egiaztatzea beharko dute, Erabaki honen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Izen-ematea Osakidetzaren aldi baterako kontratazioko webgunean dagoen izena emateko formulario elektronikoren bidez egingo da. Formulario horretan, izangaiek kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako eskaera egingo du, eta curriculum vitae beteko du, aldi baterako kontratazioan balora daitezkeen datu alegatuekin.

Web-orri horretan argitaratuko edo jakinaraziko dira aldi baterako kontratazioko zerrenden inguruko hartzaile anitzeko egintzak. Era berean, izendapen-eskaintzetan parte hartzeko eta haietatik eratorritako jarduerak eta erabakiak jakinarazteko erabiliko da.

Eskabidean ageri diren helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa joko dira jakinarazpenetarako baliozko datutzat. Eskabidean datuak oker jarri izana eta datu horietan eguneratzeak egitea eskatzailearen erantzukizuna izango dira, ez beste inorena.

5.– Izangaiak edozein unetan aldatu ahal izango ditu datu pertsonalak (helbidea, telefonoa, etab.), aurreko puntuan adierazitako web-orrian sartuz. Aldaketa hori formatu elektronikoa bidez egingo da, eta hura egin eta hirugarren egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak.

6.– Datu pertsonalen tratamendua.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak zure datu pertsonalak tratatuko ditu. Lanpostuen Hautaketa eta Horniketa izeneko tratamenduaren helburua da izangaiak hautatzeko eta lanpostuak hornitzeko kudeaketa egitea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betez.

Datuak administrazio batzuei laga ahal izango zaizkie, baldin eta haien erregistroetan egiaztatu ahal badira izangai bakoitzak alegatutako eta aurkeztutako betekizunak eta merezimenduak, alegatutako datuen zehaztasuna egiaztatzeko. Era berean, jakinarazten da balitekeela langileei buruzko prozesuetan datuak eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei datuak lagatzea, lanpostu-eskaintzak egin ahal izateko helburu bakarrarekin, betiere izangaiek datuak lagatzeko baimena eman badute. Eskaera horri benetan erantzuteko, lan-politsetan lanerako prest dauden langileak egon beharko dira, eta Osakidetzaren estaldura-beharren aurreikuspena kon-tuan hartu beharko da.

Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, bai eta tratamendua mugatzeko edo tratamenduari uko egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago dago webgune honetan:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos> edo <http://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>

9. artikulua.– Izangaien betekizunak.

1.– Izangaiek, hemen arautzen diren zerrendetan benetan sartu ahal izateko, Osakidetzan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutako eskakizunak bete behar dituzte, bai eta kategoria / lanpostu funtzional bakoitzaren deialdiko oinarri espezifikoetan adierazitakoak eta Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan jasotako titulazio-betekizunak ere, eta ordenamendu juridiko aplikagarrian ezarritakoa.

Elkargoko kide izatea nahitaezkoa den kategoria / lanpostu funtzional baten izendapena formalizatzeko unean, esleipendunek elkargoko kide direla justifikatu beharko dute, baita eremu jakin batzuetan zerbitzuak emateko baldintza diren lizentziak eta egiaztagiria egiaztatu ere.

2.– Aldi baterako kontratazioko zerrendetako pertsonak beharrezko gaitasuna izan beharko dute kontratazioa egiteko unean, eta indarrean mantendu beharko dute kontratazioak irauten duen bitartean nahiz kontratazio-zerrendak indarrean dauden bitartean. Nolanahi ere, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak emandako ziurtagirietan jaso ahalko da pertsonak noiz, zein kategoriatan eta zein egoeratan ez daukan lanposturako beharrezkoa den gaitasuna.

3.– Gaitasun hori egiaztatzeko, interesdunak osasun-azterketa bat egin beharko du kontratatu duten zerbitzu-erakundeko Prebentzioko Oinarrizko Unitatean, baldin eta Osakidetzan egiten dioten lehen kontratatua bada, pertsona horrek gaitasun-ziurtagiririk ez badu edo ziurtagiri hori indarrean ez badago.

4.– Gaitasunak baloratzeko batzordeak, Prebentzioko Oinarrizko Unitateak aldez aurretik jakinarazita, uste badu zerrendako pertsona batek aldi baterako edo behin betiko gaitasun-gabezia duela, aldi baterako edo behin betiko utz dezake pertsona hori kontratazio-zerrendatik kanpo, baina pertsona horri aldez aurretik jakinaraziko zaizkio Batzordeak ateratako ondorioak.

5.– Era berean, zerrendatik behin betiko baztertuko da 3. puntuan deskribatutako egoeretan lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasunaren balorazioari uko egiten dion pertsona, bai eta bere gaitasunari buruzko benetako informazioa ematen ez duena ere, baldin eta informazio hori erabakigarria bada baloraziorako.

10. artikulua.– Izangaiek aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Kontratazio-zerrendak osatzen dituzten pertsonak 9. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, dagokion lanbide-kategorian edo lanpostu funtzionalean estatutupeko langile finko gisa sartzeko eskatzen den titulua barne.

2.– Ez dute aurkeztu beharko titulu hori egiaztatzeko agiririk, baldin eta Curriculum Vitae aplikazioan erregistratuta eta baliozkotuta badaukate.

3.– Era berean, ez dute aurkeztu beharko Osakidetzan eskuratutako lan-esperientziari edo Curriculum Vitae aplikazioan behar bezala erregistratuta eta baliozkotuta dagoen hizkuntza-eskakizunari buruzko dokumentaziorik.

4.– Edozein unetan aurkeztu ahalko dira Curriculum Vitae aplikazioan erregistratuta eta baliozkotuta ez dauden edo zuzendu behar diren dokumentuak, lan-esperientziarenak edo euskarazko hizkuntza-gaitasunarenak. Halakoetan, dagokion zerbitzu-erakundeko aldi baterako kontratazioa kudeatzeko unitateak erregistratu eta baliozkotu beharko ditu aurkeztutako dokumentuak.

Dokumentu horiek une hauetan baloratu eta barematuko dira: zerrendak eratzeko fasean, zerrendak eguneratzen direnean (zerrendak osatzen dituzten langileentzat) eta zerrendan langile berriak sartzeko integrazioa egiten denean. Azken kasu horretan, jada zerrenda integratzen duten pertsonari aplikatzen zaien azken eguneratze-data hartuko da erreferentziatzat. Baremazioaren emaitzak fase horiei amaiera ematen dieten ebazpenak argitaratzen direnean aplikatuko dira.

Ebazpenak argitaratu arte puntuazioa aldatzen ez bada ere, hizkuntza-gaikuntzako edozein maila aurkezteak eta, ondoren, baliozkotzeak baldintza hori egiaztatuta edukitzeko balioko du, hizkuntza-gaitasuneko maila jakin bat betekizun duten izendapenak balioztatu ahal izateko.

5.– Alegatutako betekizunak eta merezimenduak egiaztatzen dituzten agirietan faltsutze-zantzurik badago, Zigor Kodearekin bat jardungo du Osakidetzak, eta izangaia behin-behinean baztertuta geratuko da izena emateko eskabidea aurkeztu duen aldi baterako kontratazio-zerrenda guztietatik.

Alegatutako betekizunak edo merezimenduak justifikatzen dituzten agiriak faltsutzen badira, izangaia Osakidetza aldi baterako estatutupeko langileak hautatzeko sistematik kanpo geratuko da, eta Administrazioak beretzat gordeko ditu egintza horren aurrean zuzenbidearen arabera egin beharreko legezko ekintzak.

11. artikulua.– Zerrenda motak eta zerrendak indarrean jartzea.

1.– Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendek honako osagai hauek izango dituzte: sei hilabete edo gehiagoko bitartekotasunen eta ordezkapenen zerrendak (aurrerantzean, izendapen luzeen zerrenda); sei hilabeteko baino gutxiagoko bitartekotasunen eta ordezkapenen zerrendak (aurrerantzean, izendapen laburren zerrenda); barrutiko izendapen luzeen zerrenda; barrutiko izendapen laburren zerrendak, eta zerrenda espezifikoak.

2.– Izendapen luzeen zerrendak, izendapen laburren zerrendak, barrutiko izendapen luzeen zerrendak, barrutiko izendapen laburren zerrendak eta izena eman dutenen eta sartzeko daudenen zerrenda Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren kudeaketari buruzko aldi baterako kontratazioaren web-orrian argitaratuko dira. Zerbitzu-erakunde bakoitzaren zerrenda espezifikoak eta egiten diren eguneratzeak zerbitzu-erakunde bakoitzaren aldi baterako kontratazioaren kudeaketarako webgunean argitaratuko dira.

3.– Zerrenda bakoitza behin betiko zerrendak Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren kudeaketari buruzko aldi baterako kontratazioaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

4.– Osakidetzako aldi baterako izendapenen eskaintzak kontratazio-zerrendetan jasotako puntuazioaren arabera egin eta esleituko dira, handienetik txikienera.

12. artikulua.– Azken EPEaren deialdian sartu ez diren kategoria eta espezialitateei dagozkien zerrendak arautzea.

Azken EPEan deialdirik izan ez duten kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendak Erabaki honetako irizpideen arabera barematuko dira, eta eguneratu ahalko dira dagokion esperientzia profesionalaren eta euskararen ezagutzaren datuak eguneratuta. Gero, puntuazioaren arabera ordenatuko da zerrenda. Erabaki honen 7.3 eta 8.2 artikuluetan araututako izen-emate berriak sartzeko aukera aplikatuko da, erlazionatutako gainerako arauekin batera. Zerrendetako kide berriei jada izena emanda daudenei aplika dakizkiekeen datak erabiliz barematuko zaizkie merezimenduak, eta puntuazioaren arabera ordenatuko da zerrenda.

13. artikulua.– Izendapen luzeen zerrendak.

1.– Sei hilabetetik gorako bitartekotasunen eta ordezkapenen zerrenda (izendapen luzeen zerrenda) bakarra izango da kategoria / lanpostu funtzional bakoitzeko, eta aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaera aurkeztu duten pertsonekin eratuko da, Erabakiko 7.1, 7.2 eta 8.1 artikuluetan araututakoaren arabera.

2.– Hasieran kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen nahiz geroago sartzeko direnek zerbitzuak zein ZEtan eman nahi dituzten aukeratu ahal izango dute. Ereku geografikoa autonomia-erkidegoa duten ZE-en kasuan, lurralde-egoitza bat edo batzuk aukeratu ahal izango dira.

3.– ZE-en hautaketa hori egin ezean, ulertuko da izendapenak onartzeko prest zaudela barrutiko izendapen luzeen zerrendan hautatutako edozein ZE-etan.

4.– Izendapen luzeen zerrendan ZERik eta Barrutiko izendapen luzeen zerrendan barrutirik aukeratu ez baduzu, hiru barrutietako edozein ZEtan izendapenak onartzeko prest zaudela ulertuko da.

5.– ZEaren hautaketa edozein unetan aldatu ahal izango da, eta 21. artikuluan aurreikusitako zerrenda-eguneraketa argitaratzearekin batera izango du eragina.

26. artikuluan araututako deialdiaren edo eskaintzaren aurretik borondatezko uko egitea berariaz egin beharko da, aldi baterako langileak kontratatzeko aplikazio informatikoaren bidez, eta uko egite horren data erregistratuta geratuko da. Uko-egite horrek eragina izango du ziurtagiria Zuzendaritza Nagusian erregistratu eta 3 egun baliodun igaro direnean.

Hala ere, bizilekua beste osasun-barruti batera aldatuz gero, barruti horretako ZE batean edo gehiagotan sartzeko eskatu ahal izango da, erroldatze-ziurtagiria egiaztatu ondoren. Ziurtagiri horrek ziurtagiria Zuzendaritza Nagusian sartu eta hiru egun baliodunera izango du eragina.

6.– Aldi Baterako Kontratazioko Zerbitzu Korporatiboak kudeatuko du eksklusiboki izendapen luzeen zerrenda.

14. artikulua.– Barrutiko izendapen luzeen zerrenda.

1.– Jarraitutasun asistentziala bermatzeko, ZE baten izendapen luzeen zerrenda agortu bada, kategoria / lanpostu funtzional bakoitzerako aldi baterako kontratazioko zerrenda bat eratuko da osasun-barruti bakoitzean (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako osasun-barrutietan), eta aldi baterako langileak kontratatzeko zerbitzu korporatiboak kudeatuko du.

2.– Kontratazio-zerrenda hasieran osatzen duten pertsonak zein geroago sartzan direnek, gutxienez osasun-barruti bat aukeratu beharko dute. Barruti-aukeraketa hori egiten ez badute, ulertuko da izendapen luzeen zerrendan hautatutako zerbitzu-erakundearen Barrutian izendapenak onartzeko prest daudela.

3.– Bizilekua beste osasun-barruti batera aldatzeagatik erabaki honen 13.5 artikulua 3. paragrafoan jasotako kasuari heldzen dion pertsonak eskatu ahalko du aurreko bizilekua zuen barrutiari uko egitea, bai eta erroldatuta dagoen barrutian sartzeko ere, errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatu ondoren. Uko-egite edo sartze horrek eragina izango du ziurtagiria Zuzendaritza Nagusian erregistratu eta 3 egun baliodun igaro direnean.

4.– Zerbitzu-erakunde bateko izendapen luzeen zerrenda agortuta badago, asistentziaren jarraitutasuna bermatzeko, dagokion Barrutiko izendapen luzeen zerrendara joko da, zerrenda agortuta daukan ZEko izendapenak eskaintzeko. Barrutiko zerrendatik iritsitako eskaintzei uko egiteak berekin ekarriko du izena emanda dagoen izendapen luzeen zerrendatik eta izena eman zuen Barrutiko izendapen luzeen zerrendatik kanpo geratzea, Erabakiaren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15. artikulua.– Izendapen laburren zerrendak

1.– Pertsona bakoitzak bi zerbitzu-erakundetan sartzeko eskatu ahalko du.

2.– Zerbitzu-erakunde bat edo bi hautatuz gero, hau egin ahalko da ZE bakoitzean:

a) ZE osoa aukeratu.

b) Eremuaren arabera aukeratu (lehen mailako arreta edo ospitaleko arreta).

c) Bost lehenetsiaren artean aukeratu ahal izango dira: ospitale-esparruaren eta Lehen Mailako Arretako Unitateen (LMAU) artean.

3.– Bizkaiko Osasun Mentaleko Erakundearen kasuan, bere barruan dauden lau eskualdeak (Barrualdeko Eskualdea, Bilboko Eskualdea, Ezkerraldeko Eskualdea eta Uribeko Eskualdea) edo hiru ospitaleetako bat edo batzuk (Zaldibarko Ospitalea, Zamudioko Ospitalea eta Bermeoko Ospitalea) aukeratu ahal izango dira, betiere gehienez bost lehenetsita.

4.– Izendapen laburren zerrenda dagokion ZEak kudeatuko du, Lehen Mailako Arretakoak ez diren Mediku Fakultatiboen kontratazioa izan ezik, horien kudeaketa aldi baterako langileak kontratazeko Zerbitzu Korporatiboari baitagokio.

5.– Interesdunak ez badu hautatzen zerbitzuak zer zerbitzu-erakunde eta zentrotan eman nahi dituen, ulertuko da ez duela izendapen laburren zerrendetan egon nahi. Geroago aukeratzen badute zerbitzuak zer ZE eta zentrotan eman nahi dituzten, zerrenden hurrengo eguneratzean sartuko dira zerrendetan.

Artikulu honen 2. eta 3. apartatuen arabera hautaketa edozein unetan aldatu ahal izango da, eta 21. artikuluan aurreikusitako zerrenda-eguneraketa argitaratzearekin batera izango du eragina.

6.– Bizilekua beste Barruti batera aldatuz gero, interesdunek erroldatuta dauden Barrutiko zerbitzu-erakunde batean edo bitan sartzeko eskatu ahalko dute, eta lehenago aukeratutako zerbitzu-erakunde bat edo bi baztertu beharko dituzte. Horretarako, bizileku-aldaketa egiaztatzen duen errolda-agiria aurkeztu beharko dute.

7.– Zerrenda berriak indarrean sartzean Osakidetzan aurreko zerrendetatik eratorritako kategoria / lanpostu funtzional bereko edozein izendapen motatan lanean ari diren zerrendetan (laburrak edo luzeak) izena emanda dauden pertsonak ez dira libre egongo izendapen laburren zerrenda berrietan; beraz, ez zaie zerrenda horietako izendapen-eskaintzarik egingo izendapen hori amaitu arte.

16. artikulua.– Barrutiko izendapen laburren zerrenda.

1.– Osasun-barruti bakoitzean (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), aldi baterako kontratazioko zerrenda bat eratuko da kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako.

2.– Izendapen laburren zerrendetan eremu horretako zerbitzu-erakunde bat gutxienez aukeratu dutenek osatuko dute zerrenda hori, eta zerbitzu-erakunde bakoitzeko Aldi Baterako Kontratazioko Zerbitzuak kudeatuko du.

3.– Zerbitzu-erakunde bateko izendapen laburren zerrenda agortuta badago, dagokion Barrutiko zerrendara joko da erakunde horretako izendapenak eskaintzeko. Halakoetan, Barrutiko zerrendatik datorren pertsona batek eskaintzari uko egiten badio, pertsona hori ez da izendapen laburren zerrendatik kanpo geratuko, eta ez du ukoa justifikatu beharko; hala ere, gestioa dagokion informazio-sisteman erregistratuko da.

17. artikulua.– Zerrenda espezifikoak.

Unitate eta zerbitzu jakin batzuen jardueren arabera, zerbitzu-erakundeek eskatzen dute izendapen laburretarako sartu berri diren profesionalek unitate horietan jardunbide segurua eta kalitatezkoa bermatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta/edo trebetasunak izatea.

Premia hori langileen absentzia laburrak daudenean agertzen da, berehala gertatzen direnez ezinezkoa denean antolaketa-neurriak hartzea unitateen/zerbitzuen antolaketa langileen absentiara egokitzeko.

Behar horiei erantzuteko, kontratazio-zerrenda espezifikoak sortu ahal izango dira, Erabaki honetan aurreikusitako baldintzetan. Zerrenda horien helburua izango da langile prestatuak izatea, unitate/zerbitzu horietan behar horiei erantzuteko.

Kontratazio-zerrenda espezifikoak eratu ahal izango dira I. eranskinean aurreikusitako kategoria eta barrutietan, izendapen laburren behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik hiru hilabeteko epean.

Zerrenda espezifikoak sortzea eta ezabatzea Zuzendaritzak onartu beharko du, ZEk Osakidetza Zuzendaritzari eskaera egin ondoren, eta justifikazio-memoria ere aurkeztu beharko da. Memoria hori Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak baloratu dute, eta Osasuneko Mahai Sektorialean aurkeztuko da negoziatzeko, Kontrol eta Jarraipen Batzordean adostasuna lortu ondoren.

Izendapen laburren zerrenda espezifikoetan norbere borondatez emango da izena, eta pertsona bakoitzak, oro har, betekizunak betetzen dituen zerrenda espezifikoetan eman ahalko du izena.

Dagokion ZEk izendapen laburren zerrendetan dauden pertsonak bakarrik agertu ahal izango dira zerrenda espezifikoetan.

Behin zerrenda espezifikoak agortuta, eta hemen adierazitako betekizunen arabera zerrenda berrietan sartzen ez diren bitartean, ZEk izendapen laburren zerrendara joko da.

Honako baldintza hauetakoren bat egiaztatzen duten pertsonak sartuko dira zerrenda espezifikoetan:

- Espezialista-titulua dutenak, espezialitaterik badago edo egon bada.
- Prestakuntza edo esperientzia profesionala dutenak:
 - Azken lau urteetan gutxienez hiru hilabeteko lan-esperientzia izatearen ziurtagiria, gaitasun positiboa gisa kalifikatuta.
 - Osakidetza zerbitzu-erakundeek emandako prestakuntza gaindituta izatea.
 - Graduondoko prestakuntza egiaztatzea, gutxienez 250 ordu teoriko-praktiko, Estatuko Osasun Sistemako osasun-erakundeetan praktika profesionalak izanik.

Aurreko guztia agiri bidez egiaztatu beharko da.

Zerrenda espezifikoak izendapen laburren zerrendako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, eta ZE bakoitzaren Aldi Baterako Kontratazioa Kudeatzeko Unitateak kudeatuko ditu.

Puntuazio-hurrenkerari jarraituz egingo dira deialdiak, eta zerrenda espezifikoetako pertsonak lehenetsuna izango dute kontratazio-eskaintzetan, Erabaki honen I. eranskinean jasotako unitateetan lan egitea dakarten absentsia laburretarako, eta ezin izango dira atxiki izendapena egin den zerrenda espezifikoari dagokiona ez den unitate batera.

Zerbitzu-erakundeek, dagozkien zerrenda espezifikoak osatze aldera, beharrezkotzat jotzen den prestakuntza teorikoa/praktikoa eskaini ahal izango dute, kasuan kasuko premien arabera, eta prestakuntzaren edukiak homogeenak izan beharko dira zerbitzu-erakunde guztientzat.

Prestakuntza-eskaintza espezifiko hau ZE guztien arteko koordinazio- eta lankidetzari irizpideen mende egongo da. Horretarako, prestakuntza-programak egingo dira, edukiak eta iraupena adierazita. Prestakuntza-eskaintzak zerrendaren ordena errespetatu beharko du. Horretarako emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, eta ziurtagiri horrek Osakidetza osoan izango du balioa. ZE bakoitzeko Langileen Ordezkaritzari igorriko zaio azkenean egingo den prestakuntza-eskaintza, prestakuntza jasoko duten pertsonak eta iraupena identifikatuta.

ZEko izendapen laburren zerrendako lehentasun-ordenaren arabera eskainiko da prestakuntza, eta hautagaiarentzat borondatezkoa izango da. Prestakuntza egiten duten pertsonak nahitaez sartuko dira prestakuntza jaso duten zerrenda espezifikoan.

Eginda dagoen zerrendaren batean dauden pertsoneri ez zaie beste zerrenda batzuetako prestakuntzarik eskainiko.

Zerrendako norbaitek prestakuntza-eskaintza jasotzen badu eta justifikatutako arrazoiak direla-eta ezin badu onartu, zerrendan duen tokia errespetatuko zaio, eta eskaintza hori egitea aurreikusten den hurrengo prestakuntza-txandan eskainiko zaio.

Era berean, prestakuntza eskaini ahal izango zaie Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan jada lanean ari diren pertsoneri, baldin eta beren lanaldia normaltasunez egitearekin bateragarria bada.

Nolanahi ere, Osakidetzako zerbitzu-erakundeek zerrenda espezifikoetan sartzeko emandako prestakuntzak lau urteko iraungitze-epea izango du.

Kasuan kasuko kategoriako / lanpostu funtzionaleko izendapen laburren zerrenden maiztasun-berearekin eguneratuko dira zerrenda espezifikoak.

18. artikulua.– Izendapenak onartzeko prestutasun mota.

1.– Aldi baterako kontratazioko zerrendetako pertsonak erabaki ahal izango dute lanaldi mota hauen arabera izendapenak onartzeko prest dauden ala ez:

- a) Edozein lanaldi mota.
- b) Lanaldi osoa bakarrik.
- c) Lanaldi-murrizketak bakarrik.

2.– Lanaldi mota aldatu ahal izango da, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren webgunearen bidez. Lanaldi-aldaketa interesdunak lanaldi motaren azken aukera egin zuenetik hiru hilabete igaro ondoren bakarrik egin ahal izango da.

3.– Lanaldi-murrizketa baten izendapena indarrean izanik ere izendapen horri uko egin ahalko zaio, Erabaki honetako 32. artikulua ezarritakoaren arabera.

4.– Interesdunak ez badu lanaldi mota hautatzeko aukera erabiltzen, ulertuko da lanaldi osoko izendapenak egiteko bakarrik dagoela lan egiteko prest.

19. artikulua.– Ofizioz baztertzea.

Kasu hauetako batean daudenek ezin izango dute zerrendetan izena eman, eta ofizioz baztertuak izango dira:

a) Osakidetzari atxikita egotea izendapena jabetzan daukan estatutupeko langile gisa, karrerako funtzionario gisa edota lortu nahi den kategoriako / lanpostu funtzionaleko lan-legepeko kontratadun finko gisa.

b) Lortu nahi den kategoriako / lanpostu funtzionaleko estatutupeko langile finkoa izatea eta Gizarte Segurantzako erakunde sanitarioetan edo osasun-zerbitzu autonomikoetan destinoa izatea edo destinoa gordeta edukitzea.

c) Erakunde edo zerbitzu horietatik etortzea eta aktibo ez den beste egoera batean egotea.

20. artikulua.– Aldi baterako kontratazioko zerrenda guztien lehentasun-ordena.

1.– Aldi baterako kontratazioko zerrenda guztiak (bai izendapen luzeenak, bai laburrenak) osatzeko lehentasun-ordena honako hauen batura izango da: azken Enplegu Publikorako Eskaintzako (aurrerantzean, EPE) oposizioaldiko puntuak, esperientzia eta euskararen ezagutza. Datu horiek honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

a) EPEko oposizioaldiko puntuazioa: gehienez, 100 puntu.

Oposizioaldiari dagokion puntuazioa lortzeko, gorengo puntuazioa emango zaio dagokion kategorian azken EPEan puntuaziorik altuena lortu duenari, eta gainerakoei, berriz, puntuazio proportzionala aplikatuko zaie, adierazitako irizpidearekin bat etorriz.

Oposizioaldiak bi proba baztertzailer dituen deialdietan, proba bakoitzean lortutako puntuak batu eta batez bestekoa eginda esleituko da puntuazioa.

Izangaiak lehenengo ariketa bakarrik egin badu, ariketa horretan lortutako puntuazioaren erdia izango da bere puntuazioa.

Oposizio-faseari dagokion puntuazioa lortzeko, ezinbestekoa da EPE horretako eskaerak aurkezteko egunean titulazio-baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

b) Lan-esperientzia: gehienez, 60 puntu.

Kontuan hartuko dira azken EPEko eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte emandako zerbitzuak, deialdi bakoitzeko oinarrietan ezarritako irizpideen arabera, zerrendak eratzeari buruz Giza Baliabideen Zuzendaritzak emandako Ebazpenaren aurreko urteko abenduaren 31n Osakidetzan izandako lan-esperientziaren eguneratzea barne. Azken EPEko deialdiko kategorietan lan-esperientziari zegokion gehieneko puntuazioa 60 puntukoa baino gutxiagokoa edo gehiagokoa izan bazen, puntuazio hori proportzionalki egokituko da 60 puntuko gehienekora.

Zerrendak eratzeari buruz Giza Baliabideen Zuzendaritzak ematen duen Ebazpenean ezartzen den epearen barruan, azken EPEan alegatu ez den lan-esperientzia egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu ahal izango da, edo alegazioak aurkeztu ahal izango dira azken EPEko lan-esperientziaren balorazioan egindako akatsak zuzentzeko. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira azken EPEko eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte egindako zerbitzuak.

c) Euskara.

Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan araututakoa aplikatuz, kategoria eta espezialitate bakoitzari Dekretu horretan ezarritako ehunekoaren baliokidea den puntuazioa esleituko zaio euskararen atalean.

Puntuazio hori emango zaio kontratazio-zerrendetan izena emateko azken egunera arte lortu eta egiaztatutako euskara tituluari.

Kontratazio-zerrendetan izena eman duten pertsonak Erabaki honen 10.4 atalean ezartzen den moduan eguneratu ahalko dute kontratazio-zerrendetan jasotzen den hizkuntza-eskakizuna.

Adierazitako unera arte puntuazioa aldatzen ez bada ere, hizkuntza-gaikuntzako edozein maila aurkezteak betekizun hori egiaztatuta izateko balioko du. Horrela, agiria egiaztatu eta sisteman sartzen den unetik, hizkuntza-eskakizun jakin bat eskatzen duten izendapenak eskaini ahalko zaizkio izangaiari.

2.– Puntu-berdinketa gertatuz gero, azken EPEko deialdietan kasu horietarako ezarritako irizpideen arabera ebatziko da berdinketa.

3.– Oro har azken EPEan dagokion kategoriaren / lanpostu funtzionalaren deialdia egin ez bada, zerrendak Erabaki honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera eratuko dira.

4.– Erabaki honen 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein unetan aurkez daitezke eskabideak, baina, eskaera horiek zerrendetan integratu arte, aurkezpen-dataren arabera ordenatuko dira urtean zehar jasotako eskabideak. Egun berean eskaera bat baino gehiago aurkezten badira, eta premia larri eta atzeraezin bat betetzeko beharrezkoa bada horietara jotzea, adinez nagusienaren irizpidea aplikatuko da, seigarren xedapen gehigarrian xedatutako kasuetan salbu.

21. artikulua.– Aldi baterako kontratazioko zerrendak eguneratzea.

1.– Kontratazio-zerrendak, eratu ondoren, urtean bitan eguneratuko dira, eta, besteak beste, aurkeztu (ekainaren 30era arte edo abenduaren 31ra arte, hurrenez hurren) eta baliozkotutako hizkuntza-eskakizunak eta euskara-tituluak eguneratuko dira, bai eta Osakidetzan eta kontratazio-zerrendetako kategorian / lanpostu funtzionalean lortutako lan-esperientzia ere.

2.– Araudia aldatu zaion kategorია batean emandako zerbitzuen kasuan, aurretik lotu ez diren zerbitzuak lotu ahal izango dira, azken enplegu publikorako eskaintzaren oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera.

3.– Izendapen laburren eta luzeen eguneratzeak barne hartuko du eratu zenetik edo azken eguneratzetik egindako hautaketa-aldaketa.

III. KAPITULUA

ALDI BATERAKO IZENDAPENEN ESTALDURAREN KUDEAKETA

22. artikulua.– Aldi baterako izendapeneneskaintza motak.

1.– Osakidetzako aldi baterako izendapenen eskaintzen ondorioetarako, bi motatan sailkatzen dira bitarteko edo ordezk langile gisako estatutupeko aldi baterako atxikipen modu guztiak: iraupen luzeko izendapenak eta iraupen laburrekoak. Izendapenak osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen araudi erregulatzailan xedatutakoaren arabera izango dira.

2.– Egonkortasuna sustatuko da aldi baterako zerbitzuak ematean:

Hala, pertsona batek bitarteko izendapen bat badu eta, jarraitutasun-irtenbiderik gabe, bitarteko izendapen bat eskatzen duen beste kausa bat badu, azken hori hasierako aldi baterako estaldura egiten ari zen pertsonari esleituko zaio, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritako denbora-mugekin.

Modu berean jokatuko da ordezkapen-izendapen bat izanik, pertsona bera etenik gabe ordezkatzeko beste izendapen bat egiten denean; kasu horretan, hasierako aldi baterako estaldura egiten ari zen pertsonak jarraituko du zerbitzua ematen, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritako denbora-mugekin.

Gauza bera egingo da pertsona batek ordezkapen-izendapen bat sinatuta duenean, betiere izendapen luzeen zerrenden bidez izendatua izan bada artikulua honen 4.b) apartatuko kasuetan, eta ordeztutako pertsonak lanpostua gordetzeko eskubidea galtzen badu edozein arrazoiengatik, dela inguruabar pertsonalengatik (erretiroa, heriotza, ezintasun-adierazpena edo beste batzuk), dela lanpostuak betetzeko edo hautatzeko prozesu batean parte hartu ondoren beste lanpostu baten esleipendun izateagatik. Kasu horretan, hasierako lanpostua aldi baterako betetzen ari zen pertsonak jarraituko du zerbitzua ematen, lanpostu huts batean bitarteko langile izendatuz, harik eta lanpostua betetzeko eta hautatzeko sistemen bidez betetzen den arte, Osasun-zerbitzuetako

estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritako denbora-mugak errespetatuz.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko abenduaren 27ko Erabakiek arautzen dute lanpostu hutsak arauz betetzea horniketa- eta hautaketa-sistemen bidez. Erabaki horien bidez, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez betetzeko irizpide orokorrak onartzen dira (2020ko urtarrilaren 3ko EHAA) eta Osakidetzan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko prozeduraren oinarriak onartzen dira (2019ko abenduaren 29ko EHAAn argitaratua). Laburbilduz, egungo erregulazioarekin, honako hau da prozesua: lanpostu hutsak behin betiko barne-mugikortasunerako eskaintzea, hori aurreikusita dagoenean egokitu ondoren; prozesu horretan hutsik edo liberatuta dauden plazak (behin betiko barne-mugikortasuna) lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean eskainiko dira; eta, azkenik, aurreko prozesuan bete gabe geratu eta liberatuta dauden plazak (lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra), hurrengo enplegu publikoaren eskaintzan eskainiko dira.

Kontuan izan behar da behin betiko barne-mugikortasuneko prozesutik liberatutako lehena berriro eskainiko dela behin betiko barne-mugikortasunerako, eta hori izango dela indarrean dagoen araudian araututako erresulta-prozesu bakarra. Bigarren eskaintza horren ondoren, behin betiko barne-mugikortasuneko bigarren eskaintza hori hutsik geratzen bada, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean eskainiko da zuzenean.

Modu berean jokatuko da pertsona batek bitarteko izendapena badu arauzko prozeduraren bidez betetzen den lanpostu huts batean eta esleipenduna, lanpostuaz jabetu ondoren, ez bada lanpostu horretan hasten, erreserba-eskubideari eutsiz araudiak baimentzen duen edozein arrazoirerengatik, edo, plazan aktibo egonik, lizentziak edo baimenak hartu dituelako. Kasu horretan, lanpostua aldi baterako betetzen ari zen pertsonak jarraituko du zerbitzua ematen, erreserbagatik edo ordezkapenagatik bitarteko langile izendapenaren bidez, lanpostuan jardunean jarraitzen badu, dagokionaren arabera, titularra lanean hasi arte.

Atal honetako aurreko paragrafoetan deskribatutako inguruabarrek eragindako izendapen-aldaketen ondorioz, beharrezkoa da aldaketa egin behar den unean lanpostua betetzeko baldintzak betetzea, bai titulazioari dagokionez, bai derrigortasun-data iraungita duen hizkuntza-gaitasunaren egiaztapenari dagokionez. Lanpostuaren baldintzaren bat betetzen ez bada, aldi baterako estatutupeko langileak lanpostua utziko du, baldintzok ez betetzeagatik.

3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9. artikuluko b eta c paragrafoetan jasotako kasuetan, haietan planteatzen diren epeak eta baldintzak betez gero, eta izendapen berriak egin behar badira, egiturazko plaza bat sortzeko izapideak egingo dira.

Lanpostua Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritako gehieneko denbora-mugak amaitu baino lehen sortzen bada, aldi baterako estaldura hasieran funtzioak betetzen zituen pertsonari esleituko zaio, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritako denbora-mugekin.

4.– Aldi baterako izendapen luzeen artean, honako kasu hauek daude:

a) 55/2003 Legearen 9.1 artikuluan definitutako bitarteko-izendapenak, lanaldi osokoak direnean eta hasiera batean sei hilabeteko edo gehiagoko iraupena aurreikusten denean.

b) 55/2003 Legearen 9.bis artikuluan definitutako ordezkapen-izendapenak, lanaldi osokoak direnean, baldin eta lanpostu-erreserba daukan pertsona sei hilabetez edo gehiagoz kanpoan egongo dela aurreikusten bada.

c) Erretiro partziala hartu duten langileak ordeztuko errelebo-kontratuak eta 64 urterekin erretiroa hartu duten langileak ordeztuko lan-legepeko bitarteko kontratuak.

5.– Aldi baterako izendapen laburren artean, honako kasu hauek daude:

a) 55/2003 Legearen 9.bis artikuluan zehaztutako ordezkapen-izendapenak, artikuluko honen 4.b) puntuan sartzen ez direnak.

b) 55/2003 Legearen 9. artikuluan definitutako bitarteko-izendapenak, aurreikusitako iraupena sei hilabetez beherakoa dela aurreikusten denean.

23. artikulua.– Izendapen luzeen zerrendetako lanpostuak betetzeko egoera bereziak.

1.– Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean zeregin espezifikoa egin behar direlako edo jakintza tekniko jakin batzuk behar direlako, ezagutza horiek lanbide-kategoria edo espezialitate jakin bateko funtzioei dagozkien arren esperientzia edo prestakuntza jakin bat eskatzen dutenean, eta arauzko prozesuen bidez plantillako langile finkoen artean bete ezin izan direnean, hautaketa-prozesu bat egingo da funtzio espezifikoa betetzeko ezagutza tekniko egokiak dituzten izendapen luzeen zerrendako pertsonen artean.

Eskakizun espezifikoren beharra eta zehaztapena dagokion zerbitzu-erakundeak egindako memoriaren bidez egiaztatu beharko da, eta dagokion baimena eduki beharko du.

Deialdietan ezin izango da inola ere ezarri lanposturako hautatu ez diren izangaien iraukeratasun-irizpiderik etorkizuneko aldi baterako hautaketa-beharretarako; beraz, deialdi espezifikoa bat egin beharko da ezaugarri horiek dituen lanpostu bat betetzeko behar bakoitzeko. Horren salbuespena da hautatutako izangaiak izendapena sinatu eta hurrengo hilabetean lanpostuari uko egitea; kasu horretan, baldintzak betetzen dituzten hurrengo izangaiak eskainiko litzaieke lanpostua, prozesuan ezarritako ordenaren arabera.

2.– Izendapen luzeen zerrendako pertsonen hautaketa protokolo honen arabera egingo da:

a) Deialdiaren berri emango zaie mahai sektoriala osatzen duten sindikatuei, eta bost egun balioduneko epea emango zaie kasuan kasuko alegazioak egin ditzaten.

b) Alegazioei erantzun zaie, sindikatuak aurkezten badituzte.

c) Aurreko izapidea bete ondoren, iragarki bat argitaratuko da aldi baterako kontratazioaren web-orrian, deialdiaren datuekin, eta bertan zehaztuko dira lanpostu funtzionala, izendapen mota, destinoko erakundea eta lanpostua betetzeko behar diren esperientzia eta/edo ezagutza tekniko espezifikoa. Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eskatutako esperientziaren eta/edo ezagutza teknikoaren arabera barematuko dira eskabideak, eta Balorazio Batzordeak (deialdia egin duen ZEak eratuko duenak) puntuazio handiena lortu duen pertsona proposatuko du.

e) Hautaketa-prozesuaren emaitza jakinaraziko zaie prozesuan parte hartu duten guztiei eta mahai sektoriala osatzen duten sindikatuei.

f) Beteko den plazari atxikita dagoen ZEak formalizatuko du Balorazio Batzordeak proposatutako pertsonaren izendapena.

3.– Arrazoa edozein dela ere hautatutako pertsonaren izendapena amaitzen bada, amaitutzat joko da deialdia eragin zuen arrazoa, eta pertsona hori ezin izango da inola ere automatikoki hautatu ezau-garri horiek dituen beste izendapen baterako. Beste hautaketa-prozesu bat egin beharko da.

24. artikulua.– Izendapen luzeen zerrendetako izangaiei izendapenen eskaintzak egiteko modua.

1.– Izendapen luzeen zerrendetako izangaien izendapenak kudeatzeko, Osakidetzak beren-be-regi gaitutako baliabide telematikoak erabiliko dira modu lehenetsian.

Hala ere, izendapen luzeen zerrendako izendapenak betetzeko eskaintza telefonoz eta posta elektronikoz egin ahal izango da, baldin eta egoera jakin batzuetan (eskaintzen kopurua eta abar) kudeaketa telematika baino arinagoa bada.

Erabaki hau garatzeko, protokolo berri bat ezarriko da, deien edo mezu elektronikoen kopurua, aldia eta erregistroa arautzeko.

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako eskaintzak kudeatzeko beharrezko egokitzape-nak egingo dira.

2.– Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren web-orrian iragarki bat argitaratu ahal izango da, dagokion zerrendan eta Barrutian parte hartzen duten eta lanerako prest dauden pertsonak, hala nahi izanez gero, iragarritako izendapenak betetzeko eskabidea aurkeztu ahal izan dezaten.

Iragarritako izendapenak zerrenda batean ordenatuko dira, eta izendapen bakoitzari zenbaki bat jarriko zaio.

3.– Dagokion kontratazio-zerrendan lanerako prest dauden izangai guztiek, baliabide tele-matikoen bidez egindako eskaintzetan, nahi dituzten izendapenak aukeratu ahal izango dituzte, ezarritako epearen barruan, eta, egiten duten hautapenean, eskainitako lanpostuak zein lehen-tasun-hurrenkeratan nahi dituzten adieraziko dute. Zigorra aplikatuko zaio eskaintza bat aukeratu duen eta lanpostua lortu ondoren onartzen ez duen pertsonari, 41. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4.– Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-eskaintzen esleipen automati-koa egingo da, izendapen luzeen zerrendan emandako puntuazio-ordenaren arabera. Dagokion zerrendan lanerako prest egonda ere deialdian ateratzen den lanpostua betetzeko eskabidea aur-kezten ez duenari ez zaio zigorra ezarriko, hurrengo puntuan arautzen den ofiziozko esleipenari kalterik egin gabe.

5.– Ofizioz esleituko dira izangaientzat hautatu ez diren edo inori esleitu ez zaizkion izen-dapen-eskaintzak. Esleipen hori ofizioz egingo da, zerrendako kideak hautatutako ZEaren arabera, lanpostuen argitalpen-ordenaren arabera, zerrendan duten lehentasun-ordenaren ara-bera eta iraupen luzeko aldi baterako izendapenak egiteko eskuragarri dauden kontuan hartuta. Izangai batek ofiziozko esleipenari uko egiten badio, ez badu justifikatzeko arrazoirik alegatu, 41. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion zigorra ezarriko zaio.

Ofiziozko esleipenak lehenengo eskaintzatik hasiko dira, izendapenak argitaratu ziren ordena-ren arabera; beraz, hutsik geratu den lehen izendapena ofizioz esleituko zaio zerbitzu-erakundeko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehenengo izangaiari. Zerrenda hori agortuko balitz, barrutiko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehen pertsonari esleituko litzaioke, eta horrela hurrenez hurren, izendapen guztiak esleitu arte.

25. artikulua.– Izendapen laburren zerrendetako izangaiei izendapenen eskaintzak egiteko modua.

1.– Izendapen laburren zerrendetako eta zerrenda espezifikotako aldi baterako kontratazioko eskaintzak, ahal dela, telefonoz egingo dira, kontratazio-zerrendan agertzen diren izangaien telefonora deituta.

Arrazoi horregatik egiten diren telefono-deiak sistema informatikoan erregistratuko dira, egingo diren eskaintza eta haren onarpena edo ukoa jasota uzteko.

Erabaki hau garatzean, protokolo berri bat ezarriko da, deien kopurua, aldia eta erregistroa arautzeko.

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako eskaintzak kudeatzeko beharrezko egokitzapenak egingo dira.

2.– Oporraldietarako aldi baterako izendapenen eskaintzak telematikoki egin ahalko zaizkie izendapen laburren zerrendetako izangaiei, 24. artikuluan araututakoa aplikatuz.

26. artikulua.– Deia edo eskaintza egin aurreko uko boluntarioak onartzea.

Izendapen-eskaintza jaso aurretik, interesdunak izendapen luzeen zerrendako ZE bati edo batzuei uko egitea eskatu ahal izango du.

Izendapen laburren zerrendan, aldeztu aurretik uko egin ahal izango zaio edozein izendapen-eskaintzari, hautatutako erakundeetako bati, eremuetako bati (ospitalekoa edo lehen mailakoa) edo zentroetako bati, baldin eta gehienez bost zentro aukeratu badituzte, erabaki honen 13.5 artikuluan 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

27. artikulua.– Aldi baterako izendapenen eskaintzei uko egitea.

1.– Oro har, izendapen-eskaintzei ezin izango zaie uko egin, salbu eta kontrakoa arautzen bada. Hala ere, uko egite hori onartu ahal izango da, baldin eta, izendapen-eskaintza egiten den unean, honako justifikazio-kausa hauetakoren bat alegatzen bada eta kausa horiek egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezten bada Erabakiaren 37. artikuluan ezarritako epean:

a) Izangaia zerbitzu berezietako egoeran dagoela aitortzeko kasuren batean badago. Egoera horiek jasota daude funtzio publikoari buruzko indarreko legerian, bai eta eskaintza egiten den unean indarrean dagoen Osakidetzako langileentzako lan-baldintzei buruzko Akordioan ere.

b) Izangaia izendapen luzeen zerrendaren bidez lortutako beste kategoria / lanpostu funtzional bateko izendapen bat indarrean badauka.

c) Zerbitzuak ematen ari bada Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zentro batean, beste administrazio publiko batean edota Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin itundutako zentroetan edo Euskal Osasun Sistemari atxikitakoetan (atxikimendu-hitzarmen berezi bati jarraikiz).

d) Izangaia Osakidetzan lanean badabil aurreko izendapen luzeen zerrendatik lortutako bitarteko, behin-behineko edo ordezkotako izendapen batekin. Kasu horietan, interesduna justifikatuta geratuko da indarrean dagoen izendapen luzeen zerrendan, Erabaki honen 22.3 artikuluan xedatutako egoeran salbu.

Dena dela, eskaintza behin bakarrik egingo da zerrenda berrietatik, behin indarrean daudela.

e) Izangaia Osakidetzan lanean ari bada, izendapen laburren zerrendatik emandako etenik gabeko ordezkapen-izendapen batekin, betiere izendapen horrek sei hilabeteko edo gehiagoko iraupena badu.

f) Kontratazio-eskaintza egitean, izangaia ezkondu osteko edo indarreko legerian aurreikusitako izatezko bikotea eratu osteko egun naturalen barruan badago, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, edo kontratua epe horretan hasten bada. Kasu horiek egiaztatzeko, ezkontza egin dela edo dagokion Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

g) Izangaia aldi baterako ezintasun-egoeran badago. Kasu horretan, ez zaio beste izendapenik eskainiko altaren berri eman arte; horretarako, dagokion zerbitzu-erakundeari aurkeztu beharko dio dagokion dokumentua.

h) Izangaia erakunde ofizial batek emandako beka baten jabe bada edo bere zerrendako kategoriarekin / lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten ikasketa ofizialak egiten ari bada. Ez zaio izendapenik eskainiko, harik eta beka, ikasketa ofizialak edo ikasturtea amaitu direla jakinarazi arte.

i) Izangaia HABEK homologatutako zentroetan euskalduntze-ikastaro trinkoak edo barnetegiak egiten ari bada. Halakoetan, ez zaio izendapenik eskainiko, harik eta izangaiak ikastaroen amaieraren berri eman arte.

j) Izangaia osasun-zientzietako prestakuntza espezializatuko aldiak, lanbide-hobekuntzako ikastaroak edo Osakidetzako zerrenda espezifikoetarako prestakuntza, graduondokoa edota masterra egiten ari bada zentro ofizialetan eta horiek 25 kredituren edo gehiagoren baliokideak badira. Ez zaio izendapenik eskainiko, harik eta izangaiak prestakuntza, ikastaro, graduondoko edo masterreko aldia amaitu dela jakinarazi arte.

k) Askatasun-gabetzearen kasuetan, kondena-epai irmoa ematen ez den bitartean. Askatasuna berreskuratzen denean zerrendetan lanerako prest egotera igaroko da berriro interesduna, betiere askatasuna berreskuratu eta hamar egun balioduneko epean jakinarazten badu.

l) Izangaiak, legezko zaintza dela-eta, ordainpeko jarduerarik egiten ez duen desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorialen bat daukan pertsona bat zaindu behar badu zuzenean. Kasu horretan, dagozkion egiaztatgiriak aurkeztu beharko ditu. Justifikazio horrek hilabeteko iraupena izango du gutxienez, eta, ondoren, interesdunak berriro aktibo jartzea eskatu ahal izango du. Justifikazio hori ezin izango da hirutan baino gehiagotan alegatu urte naturalean.

m) Izangaiak odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideak zaindu behar baditu, betiere ahaide horrekin bizikidetzaren egonkorra badu (errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatua) eta adinagatik (65 urtetik gorakoa), istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin bada eta ez badu ordaindutako jarduerarik egiten. Horretarako, dagozkion egiaztatgiriak aurkeztu beharko ditu izangaiak. Justifikazio horrek hilabeteko iraupena izango du gutxienez, eta, ondoren, interesdunak berriro aktibo jartzea eskatu ahal izango du. Justifikazio hori ezin izango da hirutan baino gehiagotan alegatu urte naturalean.

n) Izangaiak, legezko zaintza dela-eta, 12 urtetik beherako adingaberen bat zaindu behar badu zuzenean, bai eta izangaia bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko eskubide hauek baliatzen ari bada ere, indarreko legerian ezarritako kasuetan eta iraupenean: edozein modalitateko harreragatik lizentzia eta amatasunagatik edo aitatasunagatik lizentzia. 12 urtetik beherako adingabeak zaindu behar dituztenen kasuan, justifikazio horrek hilabeteko iraupena izango du gutxienez, eta, ondoren, interesdunak berriro aktibo jartzea eskatu ahal izango du. Justifikazio hori ezin izango da hirutan baino gehiagotan alegatu urte naturalean.

o) Izangaia nazioarteko erakundeen misioetan, destinoa atzerrian duten osasun-arloko GKE-etan, atzerriko gobernu edo erakunde publikoetan edo nazioarteko lankidetzako programeetan parte hartzen ari bada. Parte-hartze hori behar bezala egiaztatu beharko da.

p) Izendapen laburren zerrendatik izendapen bat eskaintzen denean, arestian adierazitakoez gain, uko egiteko beste bost arrazoi egongo dira:

a) Edozein enpresa pribatutan lanean aritzea. Horretarako, lan-kontratua aurkeztu behar da.

b) Izangaiak izendapen luzeen zerrendaren bidez lortutako izendapen bat indarrean izatean.

c) Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senideen gaixotasun larria, ospitaleratzea edo heriotza, edo maila handiagokoena, baldin eta bizikidetzaren egonkorra badaukate (errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da), indarreko legerian arrazoi horientzako lizentziarako ezarritako aldirako.

d) Deialdia egin eta hurrengo 12 orduetan edo aurreko izendapen bat amaitu eta hurrengo 24 orduetan hasteko eskaintza bat bada. Kasu horretan, lanerako prest egoten jarraituko da.

e) Genero-indarkeriaren biktima izanda, aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emanda dauden izangaiak uko egin ahal izango diote aurrez onartutako edo orain arte egindako aldi baterako edozein loturari, bai eta aldi baterako edozein lotura izateko eskaintzari ere, eta ez da inolako bazterketarik aplikatuko Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotako moduan.

28. artikulua.– Izendapenen eskaintzak. Amatasun- edo aitatasun-lizentzia, edo haurdunaldiko edo edoskitzaro naturaleko arriskua.

Aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emanda dauden eta lanerako prest dauden izangaiak, aldi baterako izendapena egiteko unean amatasun- edo aitatasun-lizentzia edo adopzio edo harreragatikoko lizentzia hartzen ari badira, edo haurdunaldiko edo edoskitzaro naturaleko arriskugatikoko prestazioa jasotzen ari badira, izendapen hori eskainiko zaie. Izangaiak onartzen badu, izendapena bermatuko da lanbide-esperientziaren zenbaketarako, baina lizentzia hori baliatzen jarraitu ahal izango du horretarako legez ezarritako aldia amaitu arte, eta benetako laneratzea lizentzia amaitu eta hurrengo egunera atzeratuko da, betiere izendapena eragin zuen arrazoiak bere horretan jarraitzen badu.

29. artikulua.– Izendapen luzeen zerrendatik eskaini diren eta indarrean dauden izendapenei uko egitea.

Izendapen luzeen zerrendatik deituta kategoriatan edo lanpostu funtzional jakin baterako izendatutako langileek uko egin ahal izango diote izendapenari, inolako bazterketarik aplikatu gabe, baldin eta inskribatuta dauden kategoriatan edo lanpostu funtzionala ez den beste kategoriatan edo lanpostu funtzional bateko izendapen luzeen zerrendatik eskainitako izendapen bat onartzen badute.

30. artikulua.– Indarrean dauden errelebo-kontratuei uko egitea.

Erretiro partziala hartu duen langilearen lanaldia betetzeko errelebo-kontratua formalizatu eta bi urtera, kontratuari uko egin ahal izango zaio, aldi baterako kontratazioko zerrendetan inolako bazterketarik aplikatu gabe.

31. artikulua.– Izendapen luzeen zerrendatik eskaini diren eta indarrean dauden izendapenei uko egitea.

Izendapen laburren zerrendatik deituta kategoriatan edo lanpostu funtzional jakin baterako izendatutako langileek uko egin ahal izango diote izendapenari, inolako bazterketarik aplikatu gabe, baldin eta izendapen luzeen zerrendatik eskainitako izendapen bat onartzen badute.

32. artikulua.– Indarrean dauden lanaldi murriztuko izendapenei uko egitea.

Lanaldi murriztuko izendapena indarrean duen langileak uko egin ahal izango dio izendapenari, inolako bazterketarik aplikatu gabe, izendapen hori egin eta hiru hilabetera. Uko horrek eskatzen du uko egin aurretik, edo aldi berean, Erabaki honen 18. artikulua 1.a) eta 1.b) apartatueta aipatzen diren lanaldi motetako bat aukeratzea, Osakidetza aldi baterako kontratazioko web-aplikazioaren bidez, baldin eta izangaiak ez bazuen bi mota horietako bat aukeratuta uko egiterakoan.

Artikulu honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko erretiro partziala hartu duen langilearen lanaldiaren ehunekoa betetzeko errelebo-kontratuari.

33. artikulua.– Indarrean dauden izendapenei uko egitea, espezialitate bat eskatzen duen beste izendapen bat eskaintzean.

1.– Dagokion kategorian aritzeko, betetzen ari den izendapenerako eskatutakoaz bestelako espezialitateko titulu jakin bat edukitzea eskatzen duen izendapen bat eskaintzen zaion langileak indarrean daukan izendapenari uko egin ahal izango dio. Era berean, ez da aldi baterako kontratazioko zerrendetatik kanpo geratuko, betiere espezialitatedun izendapen berriaren eskaintza onartzen badu. Gainera, izangaia zerrenda horietan berriz aktibo jarri ahalko da justifikaziorako alegatutako izendapena amaitzen denean.

2.– Beste espezialitate bat eskatzen duen izendapen bat betetzen ari delako espezialitate jakin bat izatea eskatzen duen izendapen baterako eskaintzari uko egiten bazaio, uko hori justifikatuta geratuko da, eta izangaia zerrenda horietan berriz aktibo jarri ahalko da justifikaziorako alegatutako izendapena amaitzen denean.

3.– Osasun-zientzietan espezializatutako prestakuntza sanitarioa hasi duela egiaztatzen duenak ere uko egin diezaiokete, inolako bazterketarik gabe.

34. artikulua.– Eskaintza orotarako alde aurretiko aldi baterako uko-egiteak, 12 urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko; ordaindutako jarduerarik egiten ez duen desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duen norbait zaintzeko; edo odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaide bat zaintzeko, edo maila handiagoko ahaide bat zaintzeko, baldin eta bizikidetzaren egonkorrean bizi dela egiaztatzen bada errolda-ziurtagiri bidez, eta ahaide hori adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz baliatu ezin bada eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Kontratazio-eskaintza guztiei alde aurretik uko egin ahal izango diote zerrendetako langileek, baldin eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzen badituzte, edo desgaitasuna duen pertsona bat edo beren ardurapean badute odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senitarteko bat edo maila handiagoko bat (baldin eta bizikidetzaren egonkorrean bizi dela egiaztatzen bada, eta hori errolda-ziurtagiri bidez egiaztatuta behar da), bere kabuz baliatu ezin dena eta jarduera ordaindurik egiten ez duena, betiere uko horretarako epea gutxienez hilabetekoa bada eta hiru alditan baino gehiagotan egiten ez bada urte naturalean.

Ukoa idatziz egin beharko da, eta dagozkion egiaztagiriekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona inskribatuta dagoen izendapen luzeen kategorian eta zerrenda guztietara edo pertsona hori inskribatuta dagoen kategorian eta izendapen laburren zerrenda guztietara edo bietara zabalduko da ukoa. 12 urtetik beherako adingabeak zaintzeari dagokionez, uko egite horrek gehienez ere umeak adin hori bete arte iraungo du, eta semeak edo alabak 12 urtebete arte luzatu ahal izango da.

35. artikulua.– Izendapen laburren zerrendako izendapen-eskaintza orori aldi baterako uko egitea.

1.– Izendapen laburren zerrendetan dagoen orok uko egin ahal izango dio Osakidetzak egiten dizkion izendapen-eskaintzei gehienez hilabetez urte natural bakoitzean, baldintza hauek betetzen badira:

a) Ukoa berariaz egin beharko da, aldi baterako langileak kontratatzeke aplikazio informatikoa-ren bidez, eta izangaia izena emana daukan izendapen laburren zerrenda guztiei aplikatuko zaie; ukoaren ordua eta aldia ere erregistratuta geratuko dira.

b) Ukoak eskabidea erregistratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

c) Izendapen-eskaintza bat egin baino lehen aurkeztu beharko da, eta eskabidea zer ordutan erregistratu den hartuko da kontuan.

d) Izendapen laburren zerrendan bakarrik izango du eragina.

e) Ukoa urtean behin egin ahalko da, gehienez ere hilabetez eta gutxienez astebetez.

f) Eskatutako uko-epean ezin izango da berriro eskatu izendapen laburren zerrendan berriro aktibo jartzeko.

g) Uko-aldia amaitzen denean, sistemak automatikoki aktibatuko du berriro langilea zerrendan.

h) Oro har, ezin izango da ukoa eskatu Aste Santuan, Gabonetan eta udako oporraldian (hau da, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean).

36. artikulua.– Indarrean dauden izendapenei aldi baterako uko egitea, nazioarteko erakunde lanetan, destinoa atzerrian duten osasun-arloko GKE-etan, atzerriko gobernu edo erakunde publikoetan edo nazioarteko lankidetzako programetan parte hartzeko.

Nazioarteko erakunde lanetan, destinoa atzerrian duten osasun-arloko GKE-etan, atzerriko gobernu edo erakunde publikoetan edo nazioarteko lankidetzako programetan parte hartzen dutenek uko egin ahal izango diete indarrean dituzten izendapenei, aldi baterako kontratazioko zerrendetatik kanpo geratu gabe, betiere parte-hartze hori modu frogagarrian egiaztatzen badute.

37. artikulua.– Izendapen-eskaintzei uko egitea nola justifikatu.

Izendapen bat eskaini zaion eta onartu nahi ez duen langileak dagokion Zerbitzu Korporati-boaren edo Aldi Baterako Kontratazioko Kudeaketa Unitatearen aurrean justifikatu beharko du egin zaion eskaintzari uko egiten diola. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango du, eskaintzaren berri eduki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta agiri bidez alegatu beharko du Erabaki honetako aurreko artikuluetan aipatutako justifikazio-arrazoietako bat gertatu dela.

Aipatutako hamabost egun naturaleko epe horri dagokionez, eta eskaintza telefono bidezkoa bada, jakinarazpena egindakotzat joko da zerrendak kudeatzeko sistema informatikoan markatzen denean. Eskaintza telematikoa bada, aldiz, justifikatzeko epe hori espresuki adieraziko da Osakidetzako aldi baterako kontratazioko webgunean.

38. artikulua.– Ez justifikatzearen ondorioak.

1.– Sei hilabeteko epean ez zaie izendapenik eskainiko izendapena telefonoz eskaini zaien langileei edo 24.5 artikulua araberako ofizioz lanpostu bat esleitu zaienei, baldin eta, izendape-

nari uko eginda, eskaintza egin eta hurrengo 15 egun naturaletan ez badute agiri bidez justifikatu kontratazio horri uko egin diotela, 37. artikuluan ezarritakoaren arabera. Epe horretan (15 egun natural) justifikatu gabeko bigarren ukoak zerrendatik urtebetez kanporatzea ekarriko du. Epe horretan (15 egun natural) justifikatu gabeko hirugarren ukoak zerrendatik urtebetez kanporatzea ekarriko du.

2.– Ez justifikatzearen ondorioek eskaintzari dagokion zerrenda motari (izendapen luzeak edo laburrak) eta haren kategoria zehatzari soilik eragingo diete.

39. artikulua.– Hainbat kategoriatako izendapen laburren zerrendak.

Ez da egingo kategoria / lanpostu funtzional bateko izendapen laburren zerrendako kontratazio-eskaintza berririk, harik eta beste kategoria / lanpostu funtzional bateko izendapen laburren zerrendaren bidez esleitutako indarreko izendapena amaitu arte, Erabaki honen 33. artikuluan ezarritako kasuetan salbu.

40. artikulua.– Langileak berraktibatzea kontratazio-zerrendetan.

1.– Ondoko egoeraren batean dauden langileak berraktibatu egin behar dira kontratazio-zerrendetan egoera hauek:

a) Izendapen luzeen zerrendaren edo izendapen laburren zerrendaren bidez emandako izendapena amaitzen zaienak. Izendapena amaitu eta hamabost egun naturaleko epean eskatu beharko da berraktibazioa. Berraktibazioa eskatzeko, Osakidetzako Aldi Baterako Kontratazio Zerbitzu Korporatibora jo beharko da, izendapen luzeen zerrendaren bidez emandako izendapena bada; aldiz, Zerbitzu Erakundeko Aldi Baterako Kontratazio Zerbitzura jo beharko da, izendapen laburren zerrendaren bidez emandakoa bada. Hala ere, izendapen laburren zerrendan (eta ez izendapen luzeen zerrendan), ofizioz berraktibatuko du langilea zerbitzu-erakundeko Kontratazioko Zerbitzuak, baldin eta izendapen laburren zerrendatik eskainitako kontratazioa hasterako izendapen hori noiz amaituko den jakinez gero.

b) Izendapen luzeen zerrendatik eskainitako kontratazio baten ukoa justifikatu badu edo izendapen luzeen zerrendatik eskainitako ukoa justifikatu badu. Justifikazioaren arrazoa amaitzen denetik hamabost egun naturaleko epean eskatu beharko da berraktibazioa. Berraktibazioa eskatzeko, Osakidetzako Aldi Baterako Kontratazio Zerbitzu Korporatibora jo beharko da, baldin eta justifikazioa izendapen luzeen zerrendan egin bada. Aldiz, justifikazioa izendapen laburren zerrendan egin bada, dagokion Zerbitzu Erakundeko Kontratazioko Zerbitzuari eskatu beharko zaio berraktibazioa.

2.– Kontratazioko Zerbitzuak 3 egun balioduneko epean berraktibatuko du interesduna, hark jakinarazpena egiten duenetik zenbatzen hasita, salbu eta izendapen laburren zerrendako izendapena hastean izendapen hori noiz bukatuko den ezagutzen bada. Azken kasu hori izendapen laburren zerrendan soilik aplikatu daiteke, eta langileak «lanerako prest» daudela adieraziko da izendapena amaitu baino 6 egun natural lehenago.

3.– Atal honetan aipatzen diren berraktibatze-epeak igarotzen badira interesdunak berraktibatzea eskatu gabe, hura eskatu izan balu eskaini litzaizkiokeen izendapenak galduko lituzke. Berraktibatze-epea igarotakoan, berraktibatzea eska daiteke oraindik, baina eskabidea dagokion organoan erregistratu eta hamabost egun naturalera izango ditu ondorioak.

41. artikulua.– Zerrendetatik kanpo geratzea.

1.– Zerrendetako kontratazio-eskaintza bati uko egiten zaionean dagokion epean agiri bidez justifikazioa egiaztatu gabe eta indarrean dagoen izendapen bati uko egiten zaionean, izangaia 6 hilabetez

geldituko da zerrendetatik kanpo dagokion kategorian / lanpostu funtzionalean (izendapen luzeen zerrenda edo izendapen laburren zerrenda), baldin eta lehenbiziko ukoa bada.

Indarrean dagoen izendapen bati bigarren aldiz uko egiten zaionean edota kontratazio-eskaintza bati bigarren aldiz uko egiten zaionean uko hori epe barruan justifikatu gabe, izangaia hamabi hilabetez geldituko da izendapen luzeen zerrendatik edo izendapen laburren zerrendatik kanpo dagokion kategorian / lanpostu funtzionalean.

Indarrean dagoen izendapen bati hirugarren aldiz uko egiten zaionean edota kontratazio-eskaintza bati hirugarren aldiz uko egiten zaionean uko hori epe barruan justifikatu gabe, izangaia behin betiko geldituko da izendapen luzeen zerrendatik edo izendapen laburren zerrendatik kanpo dagokion kategorian / lanpostu funtzionalean.

2.– Indarrean dauden izendapenei uko egiteak 1. apartatuan aipatutako bazterketak dakartza berekin, uko-arrazoia edozein dela ere, Erabaki honen 29., 30., 31., 32., 33. eta 36. artikuluetan ezarritako kasuetan izan ezik.

3.– Halaber, kontratazio-zerrendetatik kanpo geldituko da, aurretik ezarritako epeetan, Erabaki honen 24. eta 25. artikulua garatzeko ezartzen den Protokoloaren arabera egindako deiei erantzuten ez dieten langileak. Osakidetzak bazterketak berrikusiko ditu, interesdunek aurkezten dituzten alegazioak kontuan hartuta.

4.– Era berean, baztertutako langileak berriro sartu ahalko dira zerrendetan. Osakidetzak beretzat gordetzen du baztertutako izangaiei berriro deitzeko eskubidea, baldin eta kategorian / lanpostu funtzional jakin baterako indarrean dagoen zerrenda amaitu bada eta behar asistentzial atzeraezin bat bete behar bada, zerrendako izangai guztien arteko lehentasun-ordenaren arabera. Izendapena onartu egiten bada behar asistentzial atzeraezin bat bete behar delako, penalizazioa baliogabetu egingo da izendapen hori amaitzean.

5.– Penalizazioakezdueragotzidiziplina-araubidea aplikatzeaz zerrendetan, hurrengo artikuluan arautzen den kasu berezia baita.

6.– Izendapen luzeen zerrendan edo izendapen laburren zerrendan penalizazioaren bat ezartzen bada, posta elektronikoz jakinaraziko zaio interesdunari egoera hori, bai eta dagozkion ondorioak ere.

IV. KAPITULUA

DIZIPLINA-ARAUBIDEA

42. artikulua.– Diziiplina-araubidea.

1.– Osakidetzako kontratazio-zerrenden bidez lanean ari diren bitartean, zerrenda horietan izena eman duten pertsonen diziiplina-espeditentea ireki ahal zaie. Espediente hori honako hauetan araututakoari jarraituz tramitatuko da: Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen XII. kapitulua eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren VII. titulua (modu osagarrian eta diziiplina-espeditenteei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoaren beste edozein arautan aplikatzekoa).

2.– Izendapena eman zion zerbitzu-erakundeko zuzendari-gerenteak egingo du prozeduraren ebazpena, ebazpena ematean espeditentatutako pertsonak erakunde horretan izendapena amaituta izan zein ez, arauhaustea izendapenaren iraunaldian gertatu baitzen.

3.– Ezin izan bazen diziiplina-espedientea tramitatu izangaia aktibo zegoela, aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emana duten pertsonen zigorra jaso ahalko dute honako hauetan jasotzen diren prozedura eta arau-hausteen arabera: Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen XII. kapitulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren VII. titulua. Diziiplina-espedientearen xede diren jazoerak gertatu ziren zerbitzu-erakundeko zuzendari-gerenteak hasi eta ebatziko du prozedura hori.

4.– Aurreko apartatuan oinarrituta hasten den prozedura estatutupeko langileen diziiplina-prozedurek emandako printzipioen arabera izapidetuko da.

5.– Aplikatu beharreko zigorrak 55/2003 Legearen XII. kapituluan jasotzen dira. Hala ere, espedientearen xede diren jazoeren larritasunaren arabera, izangaia aldi baterako edo behin betiko baztertuko da kontratazio-zerrendetatik; era berean, zehapenak izendapen luzeen eta izendapen laburren zerrendak barne hartu behar dituen baloratuko da, bai eta zehapena espedientatutako pertsona izena emanda daukan kategoria / lanpostu funtzional guztietako zerrenda guztietara hedatzen den ere.

6.– Era berean, 55/2003 Legearen 75. artikuluan ezarritako behin-behineko neurriak hartzeari buruzko araudia aplikatuko da, diziiplina-espedientearen xede diren jazoeren larritasunaren arabera.

V. KAPITULUA

LANGILEEN ORDEZKARIEI INFORMAZIOA EMATEA ETA IZENDAPENAK ARGITARATZEA

43. artikulua.– Langileen ordezkarietara informazioa ematea eta izendapenak argitaratzea.

1.– Hilero, erakunde laguntzaileek aldi horretan egindako aldi baterako estatutupeko langileen izendapenei buruzko informazioa bidaliko diote langileen ordezkarietara, edo haiek eskuordetzen duten organoari, izendapen mota edozein dela ere. Informazio horretan jasoko dira izen-abizenak eta izena, kategoria/lanpostu funtzionala, antolaketa-unitatea, izendapen mota eta ordezkapenaren arrazoiak, izendapenaren hasiera- eta amaiera-data, hala badagokio, derrigortasun-data, lanpostu-kodea eta lanaldiaren ehunekoa, langileen informazio-sisteman horretarako prestatutako txosten-ereduaren arabera.

2.– Informazioa dela-eta sindikatuek emandako auziren bat izanez gero, idatziz aurkeztu beharko dute izendapenak egin diren zerbitzu-erakundearen, zeinak gehienez ere hilabeteko epean erantzungo baitu.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Asteburuetarako, jaiegunetarako eta premiazko egoerarako izendapenak.

Asteburuetan eta premiazko egoeretan kontratatze protokolo berri bat ezarriko da, Erabaki hau garatzeko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Genero-Indarkeria.

1.– Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen emakumeak, aldi baterako izendapen baten bidez zerbitzuak ematen ari bada, lehentasuna izango du antzeko ezaugarriak dituen aldi baterako beste izendapen bat egiteko, kategoria edota espezialitate berean, berak aukeratutako

herri berean edo beste batean, eta aldi baterako duen izendapenari uko egin ahalko dio, inolako zigorrik gabe.

2.– Hala, genero-indarkeriaren biktima izanda, aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emanda dauden izangaiak uko egin ahal izango diote aurrez onartutako edo orain arte egindako aldi baterako edozein loturari, bai eta aldi baterako edozein lotura izateko eskaintzari ere, aldi baterako kontratazio-zerrendetan inolako bazterketarik aplikatu gabe.

3.– Genero-indarkeriaren biktima den izangaiak bere eskabidean honako hauek aldatu ahal izango ditu: zein zerbitzu-erakundetan eta lantokitan eman nahi dituen zerbitzuak. Egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak aldaketak, arrazoia zein den kontuan hartuta.

4.– Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira genero-indarkeriaren egoerak, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako neurriak aplikatuko dira.

5.– Bere eginkizunak betetzean sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena jasan duen izangaiak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 7. artikulua arabera, eta dagokion salaketa judiziala jarri bada, honako hauek aldatu ahal izango ditu eskabidean: zein zerbitzu-erakundetan eta lantokitan eman nahi dituen zerbitzuak. Egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak aldaketak, arrazoia zein den kontuan hartuta.

6.– Era berean, bere eginkizunak betetzean sexu-jazarpentzat edo sexuan oinarritutako jazarpentzat har daitekeen portaera jasan duen izangaiak, Sexu-jazarpentzat eta sexuan oinarritutako jazarpentzat Osakidetzan aurre egiteko protokoloaren arabera, eta Protokoloaren Ikerketa Batzordeari aurkeztutako kexa eta salaketen erregistroan jasota badago egoera hori, eta aipatu Batzordeak hala aitortu badu, honako hauek aldatu ahal izango ditu eskabidean: zein zerbitzu-erakundetan eta lantokitan eman nahi dituen zerbitzuak. Egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak aldaketak, arrazoia zein den kontuan hartuta.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Oporraldietarako aldi baterako kontratazioen erreserbak.

Aste Santuko, Gabonetako eta udako oporretatik eratorritako absentziak betetzeko izendapenak Erabaki hau garatzeko egingo den protokoloaren arabera antolatuko dira.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Derrigortasun-data iraungita duten lanpostuak betetzeko egoera espezifikoak.

1.– Oro har, hizkuntza-eskakizuna eskatuko da derrigortasun-data iraungita duten lanpostuak betetzeko.

2.– Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data iraungita duen lanpostu bat ezin bada bete kontratazio-zerrendetan dauden eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten pertsonekin, eta lanpostua betetzea ezinbestekoa bada, zerrendetan dauden eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez duten pertsonen eskaini ahalko zaizkie izendapenak, salbuespenezko bi kasu hauetako batean soilik:

a) Dagokion zerbitzu-erakundeko Zuzendaritzaren erabakiz sortutako zerrenda espezifikoan kasuan, zerrenda horietan eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen langilerik ez dagoenean lanerako prest. Kasu horretan, lehendabizi, aipatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten zerrenda espezifiko horretako lanerako prest dauden langileengana joko da eta, ondo-

ren (zerrenda horietan ere ez balego lanerako prest dagoen langilerik), hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten dagokion kategoriako zerrendetako langileengana eta, besterik ezean (aurrez ezarritakoaren arabera ere lanerako prest dagoen langilerik izango ez balitz), hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten kategoria orokorreko zerrendako langileak aukeratuko dira.

b) Eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen eta lanerako prest dagoen langilerik ez dagoenean dagokion kategoriako izendapen luzeen zerrendan, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileengana joko da. Era beran, eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen eta lanerako prest dagoen langilerik ez dagoenean izendapen laburren zerrendan eta ezta dagokion Barrutiko izendapen laburren zerrendan ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileengana joko da.

Bi kasu horietan, a) eta b) apartatuetan, kontrataziorako lehentasuna emango zaie eskatutakoaren azpiko hizkuntza-eskakizuna dutenei.

3.– Derrigortasun-data iraungita duten lanpostuak izendapen luzeen zerrendaren eta izendapen laburren zerrendaren bidez betetzeko, Erizain Espezialisten kategorian, lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio:

- 1.º Erizain espezialista, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukana.
- 2.º Erizain espezialista, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe daukana.
- 3.º Erizain jeneralista, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukana.
- 4.º Erizain jeneralista, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe daukana

Kontrataziorako lehentasuna emango zaie eskatutakoaren azpiko hizkuntza-eskakizuna dutenei.

4.– Indarrean dagoen Euskara Planaren arabera I. mailako lehentasunekotzat tipifikatutako unitateetan zerbitzuak emateko aldi baterako programak edo zeregin gehiegi edo pilaketakoak gauzatzeko bitarteko izendapenetan, euskararen ezagutzari emango zaio lehentasuna, hau da, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten izangaiak kontratatuko dira.

Indarrean dagoen Euskara Planaren arabera II. mailako lehentasunekotzat tipifikatutako unitateetan zerbitzuak emateko aldi baterako programak edo zeregin-kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa gauzatzeko bitarteko izendapenetan, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten izangaiak unitate bakoitzean ezarritako derrigortasun-ehunekora irits daitezzen zainduko da.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea.

1.– Desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzen lagunduko zaie, aldi baterako kontratazioan ere legez ezarritako kupoa lortzea ahalbidetuko duten sustapen-neurriak arautuz.

2.– Nolanahi ere, izendapen horiek formalizatu ahal izateko baldintza izango da izangaiak lanpostuari dagozkion zereginak egoki bete ahal izatea.

3.– Osakidetzak, Zuzendaritza Nagusiaren dagokion ebazpenaren bidez eta Erabaki honen Jarraipenerako Batzordearen esparruan negoziatu ondoren, beharrezko neurriak hartuko ditu xedapen gehigarri honen 1. eta 2. apartatuetan jasotakoak ahalbidetzeko.

Era berean, ebazpen horrek zehaztuko du adimen-desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko prozesua, bai eta kontratazio-eskaintza horiek zein kategoria, lanpostu funtzional eta destinatotan egin daitezkeen ere. Halaber, lanpostuetan beharrezkoak eta arrazoizkoak diren egokitzapenak

egingo dira, adimen-desgaitasuna duten pertsonak beren lan-eginkizunak behar bezala bete ahal izateko.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Prestakuntza sanitario espezializatua amaitzen duten profesionalak kontratazio-zerrendetan sartzea.

Lehenengoa:

a) Fakultatibo Espezialista Medikoen edo Fakultatibo Teknikoen kategorietan izena emateko aukera duten osasun-zientzietako gradudun edo lizentziadunek, prestakuntza-programa bukatuko badute, programa amaitzen den urteko apirilean aurkeztu ahal izango dute egoitzaldi osoan lortutako kalifikazioen egiaztatzea eta egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionalean lortutako ordena-zenbakia egiaztatzeke agiria.

Egoitzaldia Osakidetzako zentroetan egiten dutenen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioa Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako irakaskuntza-unitateei eskatuko zaie.

b) Aurreko puntuan adierazitako izangaiak hurrenkera honen arabera sartuko dira zerrendetan, zerrendak urtero egiten den eguneratzean aldatzen diren arte: egoitzaldi osoan lortutako batez besteko kalifikazioa (data horretan eskuragarri dagoena), eta, berdinketarik izanez gero, egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionalean lortutako ordena-zenbakia hartuko da kontuan.

c) a) apartatuan adierazitako pertsonak zerbitzu-erakundea eta barrutia aukeratu beharko dituzte, Erabaki honen 13., 14. eta 15. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Bigarrena:

a) Erizain espezialistaren titulazioa lortzeko, egoitzaldi bakoitzeko prestakuntza-programa osatu behar duten erizainek, programa hori amaitu baino hilabete lehenago, egoitzaldi osoan lortutako kalifikazioen egiaztatzea aurkeztu ahal izango dute, bai eta egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionalean lortutako ordena-zenbakia ere.

Egoitzaldia Osakidetzako zentroetan egiten dutenen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioa Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako irakaskuntza-unitateei eskatuko zaie.

b) Aurreko puntuan adierazitako izangaiak hurrenkera honen arabera sartuko dira zerrendetan, zerrendak urtero egiten den eguneratzean aldatzen diren arte: egoitzaldi osoan lortutako batez besteko kalifikazioa, eta, berdinketarik izanez gero, egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionalean lortutako ordena-zenbakia hartuko da kontuan.

c) a) apartatuan adierazitako pertsonak zerbitzu-erakundea eta barrutia aukeratu beharko dituzte, Erabaki honen 13., 14. eta 15. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Sexu-delitugileen erregistroko ziurtagiri negatiboa.

Haur eta Nerabeei Babes Integrala Emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legearen 57.1 artikulua aplikatuz, aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emanda duten pertsonak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute lehen izendapena sinatzeko unean, edo, bestela, Erregistro horren ziurtagiria haien izenean jasotzeko Osakidetzari emandako baimena. Aldi baterako izendapena gauzatuko den zerbitzu-erakundean aurkeztu beharko da ziurtagiria edo baimena, lan-harremana hasi baino lehen.

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Fakultatibo medikoak eta erizainak salbuespenez kontratatzea, baldin eta euren kontratazio-zerrendakoak ez diren kategoriako / lanpostu funtzionaleko izendapenak eskaintzen bazaizkie.

1.– Kategoría / Lanpostu funtzional baten kontratazio-zerrendetan ez badago lanpostu bat betetzeko pertsonarik lanerako prest eta Erabaki honetan ezarritako ohiko prozeduren bidez lanpostu hori betetzeko saiakerek emaitzarik izan ez dutela egiaztatzen bada, beste kategoría / lanpostu funtzional baten kontratazio-zerrendetan izena emana duten fakultatibo medikoak eta erizainak kontratatzeke aukera baloratuko dute Aldi Baterako Kontratazioko Zerbitzu Korporatiboak eta Asistentzia Sanitarioko Dibisioko Zuzendaritzak. Analisi horretan, kategoría / lanpostu funtzional desberdinen gaitasun komunen balorazioa egingo da, betiere salbuespen gisa eta denbora laburrean, eta eskaintza horri uko egiteak ez du inolako penalizaziorik ekarriko.

2.– Aurreko puntuan deskribatutako kasuetan, titulu-baldintza beteta benetan beteko den kategorían / lanpostu funtzionalean zenbatuko da lan-esperientzia, eta egoera hori izendapenean jasoko da.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Atxikitako zentroetan egindako aldi baterako kontratazioaren jarraipena.

1.– Zerbitzu sanitarioak emateko titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko zentro sanitarioekin atxikimendu-hitzarmen espezifikokoak izenpetzeke betekizunei eta prozedurari buruzko irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren arabera, Osakidetzari atxikitako zentroan egiten diren aldi baterako kontratazioaren jarraipena eta kontrola atxikitako zentroak berak egingo du, bertan ezarritako prozeduren eta protokoloen arabera.

2.– Nolanahi ere, Osakidetzak atxikitako zentroen esku jarriko ditu aldi baterako kontratazioko zerrendak, profesionalak zentro horietan ere lan egin ahal izan dezaten, hitzartutako zerbitzuen prestazioa eta jarraitutasuna bermatzeko.

3.– Osakidetzaren aldi baterako kontratazioko zerrendetako izangaiak ez daude behartuta atxikitako zentro batek egindako aldi baterako kontratazioko eskaintza onartzera, eta ez zaie penalizaziorik ezarriko eskaintza horri uko egiteagatik. Langileak izendapena onartzen badu, lanerako prest ez dagoela ezarriko da dagokion zerrendan atxikitako zentroan lanean diharduen bitartean. Indarrean dagoen izendapenari uko eginez gero, 29., 30., 31., 32., 33., 36. eta 41. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

4.– Aldi Baterako Kontratazioaren Jarraipenerako Batzorde Korporatiboak (6. artikulua) sei hilean behin eskatu ahal izango du, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bitartez, atxikitako zentroek egindako aldi baterako kontrataziolari buruz egokitzen jotzen duen informazioa.

HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datuen babesa.

Datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak euskarri horietarako ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak beteko dituzte Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendek.

HAMAİKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– 2016-2017ko EPEko profil espezifikoen deialdiak.

2016-2017ko EPEko profil espezifikoen deialdien ondoren, ez da Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendarik eratuko.

HAMABIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Aldi baterako kontratazioko zerrendak.

Erabaki hau indarrean jarri ondoren eratuko diren aldi baterako kontratazioko zerrendak II. eranskinean jaso dira.

II. eranskinean jasota ez dauden aldi baterako kontratazioko zerrendak eratzeko, beharrezkoa da Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez onartzea, Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatu ondoren.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Aldi baterako kontratazioari buruzko aurreko Erabakia indargabetzea.

Erabaki honek ordeztu eta indargabetu egiten du Osakidetza Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia, Osakidetzan aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzekoa, bai eta Erabaki honetan xedatutakoarekin kontraesanean dagoen maila bereko edo beheragoko araudia ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Erabakia argitaratzea eta Erabakiaren ondorioak.

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez zaie aplikatuko aurreko erabakien indarraldian emandako egintzei.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Erabakiaren garapena.

Erabaki hau garatzeko, kontratazio-protokoloak egingo dira. Protokolo horiek ezingo dira Erabaki honetan ezarritakoaren aurka joan, eta Osakidetzako aldi baterako kontratazioko webgunean argitaratuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Erabakiaren eskumena esleitzea.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri ahalmena ematen zaio Erabaki hau garatzeko behar diren ebazpenak edo instrukzioak emateko.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

I. ERANSKINA

ZERRENDA ESPEZIFIKOAK KATEGORIAK / BARRUTIAK

Erizaintza	Kritikoen Unitateak (REA, ZIU, ABZU)
	Ebakuntza-gela (endoskopiak barne)
	Endoskopia
	Larrialdiak
	Pediatria (Neonatologia/Kritikoak, Onkopediatria eta Pediatriako Larrialdiak)
	Hemodinamika
	Erradiologia Interbentzionista/Elektrofisiologia
	Hemodialisia
	Onko-hematologia (eguneko ospitalea, erradioterapiako kontsulta eta transplanteen unitateak barne)
	Farmazia
	Transfusio Unitatea
	Medikuntza nuklearra
	Segurtasun Biologiko Handiko Unitatea
Erizaintzako Laguntzailea	Nefro-hemodialisia
	Ebakuntza Gela-Esterilizazioa-Endoskopiak
	Kritikoen Unitateak (REA-ZIU-ABZU)
	Larrialdiak
	Pediatra-Erditzeak
	Kritikoak Pediatria-Jaioberriak
	Osasun Mentaleko Unitateak
Erradiodiagnostikoko teknikaria	OTA
	Erresonantzia magnetikoa
	Mamografia
Laborategiko teknikaria	Hematologia/Hemoterapia
	Larrialdietako Laborategia

2023ko azaroaren 17a, ostirala

II. ERANSKINA
ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK
(Hamabigarren Xedapen Gehigarria)

Lanbide-taldea	Kontratazio-zerrendak
A1	Alergologiako FEM
A1	Anatomia Patologikoko FEM
A1	Anestesiologiako eta Bizkorketako FEM
A1	Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko FEM
A1	Digestio Aparatuko FEM
A1	Kardiologiako FEM
A1	Kirurgia Kardiobaskularreko FEM
A1	Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko FEM
A1	Ahoko eta Aurpegi Masailtako Kirurgiako Fak. Esp. Medikoa
A1	Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM
A1	Kirurgia Pediatrikoko FEM
A1	Kirurgia Plastikoko, Estetikoko eta Konpontzaileko FEM
A1	Toraxeko Kirurgiako FEM
A1	Zainketa Aringarrien FEM
A1	Familia Medikuntzako FEM - LMAT
A1	Dermatologia Mediko Kirurgikoko eta Benereologiako FEM
A1	Emergentzietako FEM
A1	Endokrinologiako eta Nutrizioko FEM
A1	Gaixotasun Infekziosoen Arloko FEM
A1	Epidemiologia Klinikoko FEM
A1	Farmakologia Klinikoko FEM
A1	Geriatrico FEM
A1	Hematologiako eta Hemoterapiako FEM
A1	Etxeko Ospitalizazioko FEM
A1	Laneko Medikuntzako FEM
A1	Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM
A1	Medikuntza Intentsiboko FEM
A1	Barne Medikuntzako FEM
A1	Medikuntza Nuklearreko FEM
A1	Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko FEM
A1	Nefrologiako FEM
A1	Pneumologiako FEM
A1	Neurokirurgiako FEM
A1	Neurolofisiologia Klinikoko FEM
A1	Neurologiako FEM
A1	Obstetrixiko eta Ginekologiako FEM
A1	Oftalmologiako FEM
A1	Onkologia Medikoko FEM
A1	Erradioterapia Onkologikoko FEM
A1	Otorrinolaringologiako FEM

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Lanbide-taldea	Kontratazio-zerrendak
A1	Pediatriako FEM - LMAT
A1	Ospitaleko Pediatriako FEM
A1	Psikiatriako FEM
A1	Haur Psikiatriako FEM
A1	Erradiodiagnostikoko FEM
A1	Erreumatologiako FEM
A1	KSUko FEM
A1	Fam. eta Kom. Med. Irakaskuntza Unitateko FEM
A1	Ospitaleko Larrialdietako FEM
A1	Urologiako FEM
A1	Analisi Klinikoko FEMT
A1	Biokimika Klinikoko FEMT
A1	Immunologiako FEMT
A1	Mikrobiologiako eta Parasitologiako FEMT
A1	Ospitaleko Erradiofisikako FEMT
A1	Ikerkuntza Unitateko FEMT
A1	Ospitaleko Farmaziako FET
A1	Psikologia Klinikoko FET
A1	Biologiako FT
A1	Farmaziako FT
A1	Odontologiako FT
A2	Goi Mailako Ingeniaria
A2	Ergonomiako eta Psikosoziologiako Prebentzioko Goi Mailako Teknikaria
A2	Informatikako Goi Mailako Teknikaria
A2	Goi Mailako Tituluduna – Liburuzaina
A2	Goi Mailako Tituluduna – Letradua / Goi Mailako Teknikari Juridikoa
A2	Goi Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi Mailako Teknikaria
A2	Goi Mailako Tituluduna – Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria
A2	Goi Mailako Tituluduna – Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria
A2	Goi Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria
A2	Goi Mailako Tituluduna – Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Goi Mailako Teknikaria
B1	Logopediako Diplomaduna
B1	Optikan eta Optometriari Diplomaduna
B1	Erizainak
B1	Familiako eta Komunitateko Erizaina
B1	Lan Osasuneko Erizaina
B1	Osasun Mentaleko Erizaina
B1	Fisioterapeutak
B1	Emagina
B1	Terapeuta Okupazionala
B2	Ingeniari Teknikoa
B2	Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Erdi Mailako Teknikaria
B2	Administrazio eta kudeaketako erdi-mailako teknikaria
B2	Euskararen Normalizazioko Erdi Mailako Teknikaria

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Lanbide-taldea	Kontratazio-zerrendak
B2	Gizarte-langilea
C1	Anatomia Patologikoko eta Zitologiako Teknikari Espezialista
C1	Audioprotresien Teknikari Espezialista
C1	Dietetikako Teknikari Espezialista
C1	Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista
C1	Laborategiko Teknikari Espezialista
C1	Erradiodiagnostikoko Teknikari Espezialista
C1	Erradioterapiako Teknikari Espezialista
C1	Ahoaren eta Hortzen Higieneko Goi Mailako Teknikaria
C2	Administraria
C3	Sukaldaria
C3	Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikaria
C3	Informatikako Teknikaria
D1	Erizaintzako Laguntzailea
D1	Farmaziako laguntzailea
D2	Administrari Laguntzailea
D3	Zerbitzu Orokorretako Ofizial Gidaria
D3	Garraio Sanitarioaren Ofizial Gidaria
D3	Emergentzietako Ibilgailuen Ofizial Gidaria
D3	Jostundegiko Ofiziala
D3	Mantentze-lanetako ofiziala
E1	Zeladoreak
E1	Zerbitzuetako langilea